

Zertan den Euskadi

2014

Espainiako Unitatea

- Euskadik hazkundera berreskuratuko du 2014an eta azkartu 2015ean
- Barne eskariaren pixkanako bizkortzea, kanpo sektorearen bultzadarekin batera, eskualdeko hazkunderaren bultzatzaile
- Kanpo sektorearen ahulezia erlatiboak susperraldiaren abiadura baldintzatzen du
- Egiturazko erreformen bultzadarekin jarraitzea giltzarria da berrindartze sendo, jarrai eta iraunkorra lortzeko

Aurkibidea

1. Editoriala	3
2. Agertoki orokorrak hobera egin du, espero zena baino motelago bada ere	5
3. Hazkunde-aurreikuspenak: Euskadi	8
1. errekoadroa. Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Euskadin 2014ko hirugarren hiruhilekoan	26
2. errekoadroa. Esportazioen dibertsifikazioa, eskualdeen hazkundea azaltzeko faktore	28
4. Autonomia-erkidegoetako finantzak 2013an eta 2003tik 2013ra	31
5. Taulak	38

Itxiera data: 2014ko urriak 2

1 Editoriala

2013aren lehen zatian 2012. urteko atzeraldiak okerrera egin ondoren, hazkunde eta enplegu sorrera aurreikuspenak sendotuz doaz euskal ekonomiaren ingurumarian. Hala, ekonomiaren suspertzea egiaztatu da, 2013aren amaieran hasi baitzen enplegua sortzen hiruhilekoen ikuspegitik, estatuko batez bestekoaren erritmoaren azpitik bada ere. Azken adierazleek agertoki hori berresten dute, hala nola Euskadiko MICA-BBVA ereduak emandako BPGren hazkundearen aurreikuspenak edo Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak. Aurrera begira, hurrengo hilabeteetan ere suspertze hori sendotzea espero dugu, Espainian ere hala gertatuko baita, eskualdeko eta Espainiako barne-eskariaren hobekuntzan nahiz Europako herrialde nagusien dinamismoan oinarrituta. Hala, aurreikuspen honi dagokion ikusmugan, probabilitate gehien duen agertokiak euskal ekonomiaren hazkunde iraunkorra adierazten du (% 1,1 2014an eta % 1,8 2015ean).

Hainbat faktorek zehazten dute eskualdeko agertoki hori. Lehenik, **mundu mailako hazkundeak sendo utsiko dio, eta ekonomia garatuen ekarpena gero eta handiagoa** izango da, azken horiek espero beste bizkortu ez arren ere. Beraz, suspertzea aurreko zikloetan baino neurritsuagoa izaten ari den arren, hazkunde globala poliki-poliki gora egiten ari dela ikusi da; jarduera azkartzeko arrazoia Europako ekonomietarako aurreikusitako hobekuntza izango litzateke, eta horrek eskualdeko kanpo-sektoreari dinamismoa berreskuratzen lagundu beharko lioke. Nolanahi ere, herri-administrazioek esparru instituzional egokia eskaini beharko lukete eskualdeko enpresek lehiakortasun handiagoa lortzeari begira beren ahalegina areagotu ahal izateko eta kanpo-merkatuak dibertsifikatzeko prozesuarekin jarraitzeko, hazteko aukera handiena duten merkatuetara begira batez ere.

Bigarrenik, **ziurtasun handiagoko egoerak barne-eskariak hazkundearen gain duen zama nabarmenki murriztea ahalbidetu du.** Alde batetik, barne-debaluazioaren prozesuari esker, enpresek gehiago aurreztu ahal izan dute eta horrek inbertsioa pixkana areagotzen hastea dakar. Bestetik, Euskadiren kasuan beranduxeago eta arinkiago bada ere, kontsumo pribatuak dinamismoa berreskuratu du azken hiruhilekoetan; suspertze hori oinarritzkoen jokaera hobegoaren ondorio da hein batean (enplegua eta higiezin-aherastasuna egonkortzea, finantza-aherastasuna handitzea eta ziurgabetasuna murriztea), eta, bestalde, baita behin-behineko zerga-pizgarri batzuen ondorio ere (PIVE plana, adibidez). Hirugarrenik, 2012an zergak finkatzeko egindako ahalegin handiak eta 2013rako helburua bete izanak **2014. urtean Eusko Jaurlaritzak egin beharreko zerga-ahalegina murriztu dute.**

Laugarrenik, **Europako Banku Zentralak garatutako politikek familiek eta enpresek ordaindu behar dituzten interes-tasak murriztea erraztu beharko lukete,** kreditua areagotzearekin batera, batez ere hurrengo urtetik aurrera. EBZk moneta-politika nasaiagoa ekarriko duten neurriak iragarri ditu, eta hautematen hasi diren kreditu-fluxu berriak suspertzeko prozesuari emandako bultzada, txikizkako sektoreetan batez ere (familia eta enpresei emandako maileguak, milioi eurotik beherakoak). Dena den, zenbait sektorek eta eragilek nahitaez egin beharreko zor gutxitze prozesuak aurrera jarraituko du hurrengo hiruhilekoetan ere.

Azkenik, eskualdeko **kanpo-sektoreak ere gora egingo duela espero da,** ekonomia garatuetan eta garatze bidean daudenetan hazkunde orokorra gertatzen den neurrian. Are gehiago, hurrengo hiruhilekoetan euroak balioa galtzea espero da, eurogunean eta zenbait ekonomia garatutan –AEB eta Erresuma Batua– finkatuko diren hazkunde eta interes-tasen diferentzialen ondorioz, horrek eskualdeko esportazioak bizituko baititu.

Hala ere, badira oraindik **zenbait arrisku-faktore, suspertze hori motel dezaketenak.** Faktore nagusia kanpo-sektorearekin lotuta dago, hain zuzen ere. Euskal esportazioek Espainiakoek baino jokaera

nabarmen okerragoa erakutsi dute 2010eko erdialdetik, ekipo-ondasunen sektorean nagusiki, eta garraiorako materialean, zehazki. Horrez gain, urteotan ez da murriztu euroguneko herrialdeekiko mendekotasuna espero zitekeen erritmoan eta, are, 2013an gorabidean diren eta aukera garrantzitsuak dituzten zenbait merkatutara zuzendutako esportazioak murriztu egin dira. Ekipo-ondasunen inbertsioan igartzen diren zalantzak dira ildo horren arriskuen erakusgarri.

Nazioartean, hainbat faktore arriskutsu batu dira: **garatutako zenbait ekonomiak izandako geldialdia, inflazio-tasa baxuak**¹, zorpetze maila altuak eta zerga- eta moneta-politika hedakorrak abiarazteko espazio falta. Halaber, **izaera geopolitikodun hainbat gertaerak ziurgabetasuna areagotzeko mehatxua** egin dute, orain arte ekonomia errearen gain eta finantza-sektorearen gain izan duten eragina txikia izan bada ere. Azkenik, Europak banku-batasunerako bidea egiten jarraituko du, eta EBZk banku aktiboen ebaluazioari aurre egingo dio sinesgarritasunaren bila eta, aldi berean, Europako finantza-sistemaren egonkortasuna bermatuz.

Hala ere, epe erdian **Euskadik langileko produktibitatearen bilakaera azkartu beharra dauka**, horixe baitu per capita terminoetan Espainiako gainerako lurraldeekiko duen diferentzialaren oinarri, Europako eskualde nagusien mailara hurbiltzen jarraitzeko, bilakaera hori enplegu sorrera eta soldaten hobekuntzekin bateragarri eginez. Desberdintasun horiek ekintza zehatz eta zuzenak eskatzen dituzte. Lehenik, lan-merkatuaren erreforma handizaleago bat egin behar da, kontratazio finkoa sustatuko duena, soldatak lanaren produktibitatearen eta enpresaren baldintzen arabera aldatzeko aukera emango duena, lanaldi partzialeko kontratazioaren erakargarritasuna areagotzeko duena eta enpleguarekin lotutako politika aktiboen baliabideak eta, batez ere, eraginkortasuna handituko dituen. Bigarrenik, hezkuntza-sistemaren eraginkortasuna hobetzen jarraitu behar da, giza kapital handiagoa metatzea eta erakartzea posible izan dadin. Hirugarrenik, politika publikoak kapital fisikoan eta teknologikoan egin beharreko inbertsioa sustatzera zuzendu beharko lirake, enpresek hasieran nahiz garatzen ari direnean dituzten oztupoak murriztu ahal izateko eta langilearen produktibitatea eta enplegarritasuna areagotzeko. Horrez gain, zientzia eta teknologiaren euskal sarea enpresen beharretara hurbildu behar da, hala, I+G+Bn egindako gastu erlatibo handiagoak patente gehiagoren lorpena eta goi mailako eta erdi eta goi mailako teknologiko produktuen lorpena ahalbidetu dezan. Horrez gain, funtsezkoa da enpresa-marjinek lehiakortasunean irabaziak lortzeko prozesuan positiboki eragitea, eta, horretarako, administrazioek lan-arloan izan diren bezain handizaleak behintzat izan beharko lukete, lehiakortasuna hobetzeko itoguneak sortzen dituzten sektoreetan lehia handituz. Zehazki, zerbitzuen sektorea arautzeko jardunbidea praktika egokienetara lerratuko balitz, eskualdeko kanpo-sektorearen hazkundera erruz sustatuko litzateke. Azkenik, euskal gobernuak autonomia-erkidegoko defizita murrizteko konpromisoari eutsi behar dio, aurreko urteetan bezalaxe. Beraz, adierazitako alderdi guztiak funtsezkoak izango dira biztanleko BPGren hazkundera bultzatzeko eta Europarekin bat egiteko prozesua errazteko.

1: Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ondoko lotura kontsulta daiteke:
https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2014/06/Observatorio_BCE_e.pdf


2 Agertoki orokorrak hobera egin du, espero zena baino motelago bada ere

2014ko lehen zatian munduko hazkunderak izan duen moteltzea amaitutzat jo daiteke. Finantzen alorreko konfiantza- eta aldakortasun-adierazle berrienak bat datoz jardueraren pixkanakako hobekuntzarekin eta, mundu mailan, % 3,3ko hazkundera iristeko aukera emango du horrek 2014an; beraz, 2013koarekin alderatuta, hiru hamarren gorago kokatuko da. Finantzaketa-baldintza onuragarriari eusteari eta eskarian oinarritutako politika ekonomikoak babesteari esker, hazkunde globala bizkortu egingo da, eta, 2015ean, % 3,8 inguruko tasara iritsiko da.

Bai adierazle finantzarioek eta bai jarduera errealekin lotutakoek hazkunderaren aldeko agertoki batekin bat datozen seinaleak igortzen dizkigute, arrisku geopolitikoko gertakari batzuk ere agertu diren arren. Finantza-merkatuetan, historikoki baxuak diren balioetan eutsi zaio tentsioari (ikus 2.1 grafikoa), nahiz eta izaera geopolitikoko arriskuak badiren; baina, oraingoz, ez dituzte aldatu munduko hazkunderako itxaropenak. Beraz, **eurogunean, % 1,1eko hazkunde-aurreikuspenari eutsi zaio 2014rako, eta % 1,9koari, berriz, 2015erako.** Susperraldiaren oinarriak askotarikoak dira: finantza-merkatuetan sartzeko baldintza hobekak, ziurgabetasun txikiagoa, epe laburrean defizit publikoaren xedeak malgutzea, estatu mailan ezarritako erreformak eta kanpo testuinguru positiboagoa; horri guztiari **Europako Banku Zentralak abiarazitako moneta-politikaren babesa** erantsiko litzaioke orain.


Hori guztia aintzat hartuta, badirudi ikuspegi historikotik erritmo moderatuan irtengo garela atzeralditik, are gehiago politika ekonomikoaren bidez emandako babesen intentsitatea eta iraupena kontuan hartzen baditugu. Agertoki horretan, minimotako interes-tasa nominalek zorpetzearekin eta inbertsioarekin lotutako erabakietan distortsioak eragin ditzakete azkenerako, bai eta arriskuaren eta esperotako errentagarritasunaren arteko erlazioan ere, aktibo finantzarioen balioespen zuzenean eraginez. “Luzaroko geldialdi” batek erronka bat adieraz dezake politika ekonomikoaren kudeaketan, eta ez soilik ekonomia garatuetan, baita garatze bidean direnetan ere, errentagarritasun bila dabiltzan sarrera fluxuen ondorioz.

2.1 grafikoa
BBVA Research-en tentsio finantzarioen indizea, herrialde garatuetan eta garatze bidean direnetan



Iturria: BBVA Research

2.2 grafikoa
BPG globala (% h/h)



Iturria: BBVA Research

Espanian susperraldia bizkortu egin da, barne- eta kanpo-faktoreetan babestuta

Oro har Espainiako ekonomiarako Barne Produktu Gordinaren hazkundeaz egin diren aurreikuspenak berrikusi egin dira, goranzko joera hartu baitute. Hobekuntza hori kanpoko nahiz bertako zenbait faktorek azalduko lukete.

Alde batetik, familietan eta enpresetan gastuaren inguruan erabakiak hartzeko oinarrizko esanguratsuak hobetu egin dira. Horren erakusgarri dira finantza-merkatuetan ikusi den jarduera ona edota ziurgabetasuna arintzea, konfiantzari buruzko inkestek hala erakutsi baitute. **Horrez gain, zerga-politika ere ez da izango espero zen bezain zorrotza 2015ean**, eta erreforma bat egingo da zergen arloan, datozen bi urteetarako familien eta enpresen gaineko karga murriztea ekarriko duena. Ekonomian izan den susperraldiari esker hobetu da zerga bilketa eta, BPGn zenbait gastuk duten pisua ere, murriztu egin da. Ondorioz, 2014. urtearen amaieran defizit-helburua betetzeak eta jardueraren dinamismo handiagoak, 2015ean zergen karga gutxitzea hein batean xurgatzeko bidea emango dutela aurreikusten da, eta, horregatik, urte horretako BPG bi hamarren inguru haziko da.

Bigarrenik, aldakortasun bolada baten ondoren, esportazioak berriro modu jarraian gehitzea espero da. Azken urteko eskari arazoak pixkana desagertu egingo direla aurreikusi da, ekonomia garatuetan eta garatze bidean direnetan hazkunde orokor bat ematen den neurrian. Makineria eta ekipo ondasunen inbertsioan sumatu den gorakadak (% 12,3 azken bost hiruilekoetan) argi adierazten du kanpo sektorean ezarritako produkzio ahalmena gero eta handiagoa dela, eta munduko hazkundearen bizkortzeari aurre egiteko moduan legoke. Horrez gain, euroaren depreziazio bat gertatzea ere espero da hurrengo hiruilekoetan, Europa eta ekonomia garatu batzuen artean (Ameriketako Estatu Batuak eta Erresuma Batua, esaterako) finkatuko diren hazkunde eta interes-tasen diferentzialen ondorioz.

Hirugarrenik, familia eta enpresek aurrez aurre dituzten interes-tasak murriztea ekarri behar lukete Europako Banku Zentralak onartu politikek, eta, areago, kreditua handitzea, batez ere hurrengo urtetik aurrera. Dena den, ezerk ez du eragotziko zenbait sektore eta eragileren nahitaezko gainzorgabetze-prozesuak jarraitzea.

Agertoki horretan arriskuak askotarikoak dira. Alde batetik, **Estatu Batuetako Erreserba Federalaren moneta-politikaren irteerako estrategiak** nazioarteko finantza-merkatuetan izan dezakeen eragina daukagu. Horrez gain, **Ekonomia eta Diru Batasunean (EDB) jardueraren moteltzea** areagotu daiteke, eta datozen hilabeteetan Espainiako ekonomiaren hazkunde-motor nagusi izan behar lukeenaren bilakaera, hots, **esportazioena**, arriskuan jarriko luke horrek. Bestalde, finantza-merkatuen egonkortasunari eta merkatal fluxuen dinamismoaren jarraipenari mehatxu egiten diote hainbat **faktore geopolitikok**.

Barne sektorean, inportazioen hazkunde handia behin-behinekotzat jotzen da, inportazio-eduki handiko ondasunen erosketara zuzendutako zerga-pizgarriekin lotuta legokeelako eta beroriek soilik aldi batean izango luketelako eragina. **Esportazioen hazkundeak eta, bere oinarrizkoekin bat letorken kontsumo pribatuaren jokaerak, BPGren hazkunde eramangarria eta kontu korronte superabitari eustea ekarri behar lukete.** Baina, konbinazio hori gertatu ezean, arriskuan legoke susperraldiaren iraunkortasuna.

Argitalpen honen aurreko edizioetan esan izan denez, ezinbestekoa da ekonomiaren funtzionamendua hobetuko duten erreforma handizaleak egiten jarraitzea. Lan-merkatuaren egoera hobetu bada ere, desoreka nabarmenak badira oraindik. Horregatik, positibotzat jotzen da Gazte Bermerako Sistema Nazionala abian jarri izana, helburu garbi bat baitu: lanean ari ez diren edota hezkuntza- edo prestakuntza-sistemen barruan ez dauden 25 urtetik beherako gazteek lanean, hezkuntzan, aprendiz izateko prestakuntzan edo praktiketan hasteko eskaintza bat jaso dezaten lortzea, hezkuntza formala amaitzen dutenean edo langabe gelditzen direnean. Dena den, programa horretara zuzendutako funtsak ez dira

nahikoa, gazteen kolektiboak lan-munduan sartzeko dituen berezko zailtasunak –batik bat prestakuntza maila txikienekoak– gairatzeko, eta horrek ere muga dezake Gazte Bermerako Sistemaren irismena.

2.1. koadroa

Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak
(Urteko aldakuntza-tasak %tan, aurkakorik adierazi ezean)

	2011	2012	2013	2014	2015
Jarduera					
BPG erreala	0,1	-1,6	-1,2	1,3	2,3
Kontsumo pribatua	-1,2	-2,8	-2,1	1,9	2,0
Kontsumo publikoa	-0,5	-4,8	-2,3	0,1	0,6
Kapital-eraketa gordina	-5,6	-6,9	-5,2	1,2	4,7
Ekipoak eta makineria	5,5	-3,9	2,2	8,5	7,3
Eraikuntza	-10,8	-9,7	-9,6	-4,3	2,8
Etxebizitza	-12,5	-8,7	-8,0	-3,5	4,9
Barne-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	-2,1	-4,1	-2,7	1,4	2,2
Esportazioak	7,6	2,1	4,9	4,7	6,5
Inportazioak	-0,1	-5,7	0,4	5,1	6,4
Kanpo-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	2,1	2,5	1,5	0,0	0,2
BPG nominala	0,1	-1,6	-0,6	1,5	3,7
(Mila milioi euro)	1046,3	1029,3	1023,0	1038,0	1076,7
BPG etxebizitzaren esparruko inbertsiorik gabe	1,0	-1,2	-0,9	1,6	2,2
BPG eraikuntza gabe	2,0	-0,4	-0,1	2,0	2,3
Lan-merkatua					
Enplegua (BAI/EPA)	-1,6	-4,3	-2,8	1,0	2,1
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	21,4	24,8	26,1	24,5	23,1
CNTR enplegua (lanaldi osoaren baliokidea)	-2,2	-4,8	-3,4	0,8	1,7
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	2,3	3,1	2,2	0,6	0,6
Prezioak eta kostuak					
KPI (urteko batez bestekoa)	3,2	2,4	1,4	0,1	0,9
KPI (aldi bakoitzaren amaieran)	2,4	2,9	0,3	0,4	1,2
BPGren deflatorea	0,0	0,0	0,6	0,1	1,4
Soldatapekoen ordainsaria	1,3	0,2	0,7	-1,4	0,3
Unitateko lan-kostua	-0,9	-2,9	-1,5	-2,0	-0,4
Kanpo sektorea					
Kontu korronteko balantza (BPGren %)	-3,7	-1,2	0,8	0,3	1,1
Sektore publikoa					
Zorra (BPGren %)	70,5	86,0	93,9	99,8	101,3
Herri Administrazioen saldoa (BPGren %) (*)	-9,1	-6,8	-6,6	-5,5	-4,5
Etxeak					
Errenta nominal eskuragarria	0,0	-2,8	-0,7	-0,4	3,0
Aurrezki-tasa (errenta nominalaren %)	12,7	10,5	10,5	8,1	8,2

(*): Espainiako finantza-erakundeei emandako laguntzak kanpoan utzita.
 Aurreikuspenen itxierako data: 2014ko abuztuak 4.
 Iturria: erakunde ofizialak eta BBVA Research

3 Hazkunde-aurreikuspenak: Euskadi

Hainbat faktorek izan dute eragina Euskadiko ekonomian aldizkari honen aurreko alea argitaratu zenetik, 2013ko apiriletik². Alde batetik, nazioartean arriskuren batzuk agertu arren³, **finantza-merkatuak joera positiboagoan egonkortu dira**, kapital-fluxuen sarrera normaltzean, burtsan kotizazioen balioak handitu direlako eta arrisku-sariak izugarri txikitu direlako. Horrekin guztiarekin batera, **jarduera eta enplegua poliki-poliki indartzen hasi direla** ikusi da, eta Europako ekonomiaren suspertze moderatuak ere bultzatuta, inoiz baino baxuago dauden arrisku gabeko interes-tasen testuinguruan. Dena den, **moneta-politika ez da oraindik familia eta enpresetara behar bezala iristen, eta Europako finantza-sektorearen zatiketa-prozesuak eragozten du transmisio hori**, kreditua dinamizatzea oztopatzen baitu Espainia bezalako herrialdeetan, suspertze-prozesua arriskuan jarritz.

Nazioarteko testuingurua pixkana hobetu arren, 2013. urtean, uzurtze handia gertatu zen Euskadiko ekonomian, eta, INEren arabera, Euskadiko BPG % 1,9 murriztu zen; hau da, BBVA Research-en aurreikuspena (% -0,7) puntu batean baino gehiagoan gaindituz eta Espainia osoan erregistratutako behaldiaren zazpi hamarren okerrago (% -1,2). Barne eskariaren beherakada handiagoak eta Euskadiko esportazioek iaz erakutsitako ustekabeko indar txikiak azaltzen dute bilakaera okerrago hori. Euskadiko ekonomiaren jokaera erlatiboki okerragoa lehenengo seihilekoan gertatu zen nagusiki, euroguneko bigarren atzeraldian izandako unerik zailenek bultzatuta. Bigarren seihilekoan, eta jada **argiagi 2014. urtean, kointura informazioak egoera positiboagoa erakusten du**, eta Euskadin duela urtebete aurreikusitako hazkundera gertatzen ari dela berresten du horrek.

Aurrera begira, munduko ekonomiaren hazkunderaren azelerazioak –bereziki eskualdeko merkataritza-bazkide nagusien kasuan–, euroaren deprezazioak eta barne-debaluazioaren prozesuari **eusteak Euskadiko kanpo-sektorearen hazkundera** bultzatuko dute. Halaber, ziurtasun handiagoari, finantziazio-kostua murrizteari eta herri-administrazioek, oro har, Espainian zerga-politika nasaiagoa ezartzeari esker **eskualdeko barne-eskariaren suspertzea** sustatuko da. Moneta-politikari dagokionez, Europako Banku Zentralak moneta-hedapenerako eta kreditua bultzatzeko neurrien beste sorta bat onartu du⁴. Beste alde batetik, diru-sarrera publikoen hobekuntza ziklikoak zerga-politika nasaiagoa ekar dezake horretarako aukera duten herri-administrazioetan. Adibidez, gobernu zentralak zerga-erreformaren legegai-zirriborroak aurkeztu zituen bigarren hiruhilekoan; funtsean, zuzeneko zergen –PFEZ eta Sozietateen gaineko Zerga-mailakako murrizketa ekarriko du horrek 2015 eta 2016. urteetan Espainiako gainerako lurraldeetan⁵.

Nolanahi ere, konfiantzaren handitzeak, enpleguaren suspertzeak, finantziazio-kostuaren murrizketak eta kanpo-sektorearen arraste-efektuak **barne-eskariari eutsiko diote. Gainera, aurreko urteetan egindako ahaleginei esker, zerga-politikak zama txikiagoa ezarriko du barne-eskariaren gain 2014an eta 2015ean**, eta, horrekin batera, krisialdiaren aurretik eta ondoren metatutako desoreken zuzenketan egindako aurrerapenari esker –besteak beste, Euskadiko enpresa eta familien gainzorgabetzea–, epe laburrera hazkundera gertatzeko baldintzatzaile gutxiago izango da.

Aurreko guztia kontuan izanda, **BPGren % 1,1eko hazkundera espero da urte honetarako, eta 2015. urtean % 1,8ra iritsiko dela aurreikusten da**. Dena den, aurreikuspen horietan badago arriskurik. Funtsean, arrisku horiek honako hauen menpe egongo dira: merkataritza-bazkide nagusien suspertze-

2: Ikusi Zertan den Euskadi, 2013, hemen eskura daiteke: https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2014/08/1304_Zertandeneuskadi1.pdf

3: Honako hauek aipa daitezke: Europako zenbait herrialderen ezegonkortasun politikoa, AEBko zerga-ziurgabetasuna eta jarduera moteltzea garatze bidean dauden zenbait ekonomiatan.

4: Bereziki, honako hauek nabarmentzen dira: finantziazio-eragiketa nagusien interes-tasen beste murrizketa bat, % 0,05 artekoa; gordailu-eraztasunaren ordainketa ere murriztu egingo da, % -0,1 arte; epe luzerako finantziazio-eragiketen programa berri bat ezarriko da, eta, azkenik, moneta-politikak etorkizunean izan behar duen noranzkoari buruzko jarraibideak ere berrituko dira: beharrezkoa izanez gero, neurri konbentzionalak nahiz ez-konbentzionalak abiaraziko dira aurrerantzean ere.

5: Aldizkari hau ixteko garaian, ez dugu PFEZen beherapen hori Euskadiko zerga-legedian aplikatuko den berririk.

erritmoaren menpe, gertaera geopolitikoei lotuta hauteman daiteken ziurgabetasunaren menpe nahiz EBren barnean, Espainian eta, bereziki, Euskadin bertan, erreformatan egiten diren aurrerapenen menpe.

Epe ertainera eta luzera begira, **nahitaezkoa da egiturazko erreforma-planekin aurrera jarraitzea eta lan-merkatuko erronketan sakontzen jarraitzea, bereziki langabezia tasa onartezinarekin zerikusia dutenetan, giza kapitalaren hobekuntzan eta produktibitatearen handitzean.**

Euskadiko ekonomiaren uzkurtze handia 2013ko lehen zatian

2012. urtean, konfiantza falta nagusitu zen, finantza-tentsioak areagotu ziren eta zergak finkatzeko prozesuak nahiz egiturazko erreformak azkartu ziren, eta, horren guztiaren ondorioz, BPGk % 1,3ko jaitsiera izan zuen (Espainiakoa baino txikiagoa, % 1,6koa izan baitzen); ondoren, **2013an Euskadiko atzeraldia areagotu egin zen, % -1,9ra arte** (Espainiako Eskualde Kontabilitatearen –CRE– arabera, INEK argitaratutakoa⁶), eta BPG Espainian baino gehiago jaitsi zen (% -1,2), nazioarteko testuinguruak eta finantza-baldintzek hobera egin arren.

Eskuragarri dauden azken datuek erakusten dute nola, 2013ko azken hiruhilekotik, euskal ekonomiak hazkundearen biderei heldu dion, jarduera pixkanak azkartuz. Hala, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak seinale positiboa eman zuen 2013ko hirugarren hiruhilekoan, ordutik hobetzen joan dena (ikus 3.1 grafikoa) eta, hein berean, Euskadiko MICA-BBVA ereduak adierazten du, 2013an atzeraldi sakonagoa izan ondoren, urteko azken hiruhilekoan hazkundera itzulia legokela EAEko ekonomiara. Gainera, ordutik, jarduera azkartu izango zen, hazkundera 2014ko lehen hiruhilekoetarako % 0,4 h/h UEEZ⁷ ingurukoa izateraino.

EAEko ekonomiaren berrabiatzea, beraz, Espainiakoa baino apur bat motelagoa izaten ariko litzateke. Aurrera begira, barne desoreken zuzenketa nolakotasuna, batik bat lan merkatuan, kanpo sektorearen bilakaera eta barne eskariari dinamikotasuna jariatzeko bere ahalmena izango dira euskal koiuntura ekonomikoaren mugari datozen hiruhilekoetan.


2014. urteari begira, txosten hau amaitzeko unean eskuragarri dugun informazioaren arabera, jarduerak 2013ko azken hiruhilekoan abiarazitako joera hedakorra izaten jarraituko du. Dena den, euskal ekonomiaren benetako dinamismoa berreskuratzeko gakoa kanpo-sektorearen jardunean dago. Dituen arrisku edo zalantzek eta barne eskariari dinamikotasuna emateko bere ahalmenak zedarrituko dute euskal ekonomiaren koiuntura datozen hiruhilekoetan.

6: INEK Espainiako Eskualde Kontabilitateari (EEK) buruz argitaratutako datuak 2008. urtean oinarrituta daude, eta ez datoz bat erakunde horrek irailaren 25ean argitaratutako informazioarekin; azken horretan, Espainia ororako soilik, 2010ean oinarritutako koadro makroekonomikoa agertzen da. Gainera, ez datoz bat ezta ere Eustatek argitaratutakoekin: % 1,6koak 2012rako, eta % 1,2koak 2012rako (u/u), baina Autonomia Erkidegoetako Hiruhilekoko Kontabilitatearen metodologia ez da homogeneoa ez EEKrekiko, ez Espainiako Hiruhilekoko Kontabilitatearekiko.

7: Urtarokotasun eta Egutegi Eraginak Zuzenduta, UEEZ.

3.1 grafikoa


Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta (muturreko erantzunen saldoa, %)



Iturria: BBVA Research

3.2 grafikoa

Euskadi eta Espainia: aurreikusitako BPGren hazkundera MICA-BBVA ereduen arabera (% h/h)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta


Kontsumo pribatua beranduago eta arinkiago suspertu da

Euskadiko etxeetako azken kontsumoak uzurtzen jarraitu zuen 2013ko lehenengo hiru hiruhilekoetan, eta 2013ko laugarren hiruhilekoan erakutsi zuen soilik halako suspertze arin bat. Hala, bada, Euskadin, kontsumo pribatuaren suspertzea Espainian baino geroxeago gertatu zen. Koiuntura-adierazle partzialetan ere ikusten da hori: zerbitzuen sektoreko jardueraren adierazlea nahiz txikizkako merkataritza-indizea modu nabarmenean uzurtu ziren Euskadin 2013ko lehen eta bigarren hiruhilekoetan, eta urte horretan Espainiak izandako beherakada erruz gainditu zuen (% -6,1 vs % -3,9; ikusi 3.3 grafikoa). Matrikulazioak, aldiz, bizkortze sendoa erakutsi zuten 2013ko lehen zatian baina, kasu honetan, PIVE⁸ plana abiaraztearen ondorio izan zen.

Ekitaldi honekin lotuta eskuragarri ditugun datuek kontsumo pribatuak hobera egiten jarraituko duela adierazten dute, hala ere. Inflazio neurritsuak eta interes-tasen mailakako murrizketak –EBZren moneta-politikaren joera hedakorrearekin eta Europako finantza-zatiketa txikiagoarekin batera– **familien kontsumoak gora egiten jarraituko duela adierazten dute.** Joera hori bat dator Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzekin (ikusi 1. errekoadroa), horietan ere kontsumitzaileen konfiantza hobetu dela eta txikizkako salmenten gorakada ikusten baita 2014an (ikusi 3.3 grafikoa). Modu berean, lehenago aipatu adierazle partzial guztiek hazkunde-tasa positiboak agertzen dituzte⁹, bereziki autoen matrikulazio kopurua nabarmendu delarik (% +15,3 u/u, urtarrila-abuztua, UEEZ), PIVE plana indarrean jarraitzeak bultzatuta (ikusi 3.4 grafikoa). Aurrera begira, barne-kontsumoaren hedapen-eritmoari eustea aurreikusten da, lan-merkatuaren suspertzean, presio inflazionisten faltan eta inoiz baino baxuago dauden arriskurik gabeko interes-tasetan oinarrituta.


8: PIVE planak turismo eta ibilgailu komertzial arinen ordezkapena du helburu, 10 eta 7na urteko aintzinasuna badute hurrenez hurren, eraginkortasun energetiko handiagokoengatik. BBVA Research estimazioen arabera, PIVEk 9 hamarreneko ekarpena egin dio kontsumo pribatuari 2012ko urrian Espainia osorako lehen deialdia egin zenetik.
9: Informazio zehatzagoa 5.1 taulan.

3.3 grafikoa
Euskadi eta Espainia: txikizkako salmentak (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Eustaten oinarrituta

3.4 grafikoa
Euskadi eta Espainia: autoen matrikulazioak (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Trafikoko Zuzendaritza Nagusian (DGT) oinarrituta

Aurreko urteetako zergak finkatzeko ahaleginak 2014an egin beharreko doikuntza murriztu du

Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) 2012an zergak finkatzeko egindako ahalegin handiari esker, 2013an egin beharreko doikuntza txikiagoa izatea ahalbidetu zuen. Ahalegin txikiago hori eginda ere, EAEk BPGren % 1,1eko defizitarekin itxi zuen 2013ko ekitaldia, aurreko urtean behatutakoaren ia lau hamarren azpitik, eta ekitaldi horretarako adostutako egonkortasun-helburua beteta (ikus 3.5 grafikoa). Azken urteetan egindako ahalegina aztertzen bada, 3.6 grafikoa argi ikus daiteke 2013. urtean gastuaren alorrean egin zela, funtsean, doikuntza; nagusiki kapital-gastuan eta, hein txikiagoan, baita tarteko kontsumoetan ere¹⁰.


Aurrekontuen bilakaera ona lagun, Euskadik 2013an zor publikoaren hazkunde-erritmoa moteldu zuen (% 14koa izan zen, aurreko urteko % 30aren ordean) eta ez zuen jo beharrik izan gobernu zentralak likideziaren arloan emandako erraztasunetara. 2014ko lehenengo hilabeteetan, EAEk zor maila handitu zuen berriro ere, epe luzerako baloreen jaulkipenaren bidez nahiz banku-maileguren bidez (ikus 3.7 grafikoa)

Aurrera begira, **2014ko uztailean arteko aurrekontu gauzatze datuei buruzko informazioak erakuste du Euskal Autonomia Erkidegoak gastua kontrolatzeko politika arindu egin duela, %14,2 handitu baita gastua 2013ko uztailearekiko, epe berean diru sarrerak %6,1 handitu diren bitartean.** Horren ondorioz, urteko lehen zazpi hilabeteetan, EAEren defizita BPGren % 0,6 inguruan kokatu zen, 2013ko uztailean arte erregistratutakoaren antzeko mailan (ikus 3.8 grafikoa).

Testuinguru honetan, aurreko urteetako joera ikusita eta egin beharreko doikuntza txikia izanik, **Euskal Autonomia Erkidegoak ez luke arazorik izan behar 2014. urtean ere egonkortasun-helburua betetzeko** (eskualdeko BPGren % -1,0).


10: Grafikoa aztertzeko, segidaren alderagarritasunaren mesede, maiatzean ezagututako informazioa erabili da, SEC-95 formatukoa.

3.5 grafikoa
EAE: finantzatzeko gaitasuna / beharra (eskualdeko BPGren %)




Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

3.6 grafikoa
EAE: zerga-doikuntzaren deskonposaketa (eskualdeko BPGren %)




Oharra: (+) defizita murrizten da, diru-sarrerak handitzen direlako edota gastua txikitzen delako; (-) defizita handitzen da, diru-sarrerak txikitzen direlako edota gastua handitzen delako
Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

3.6 grafikoa
EAE: PDE zorra (milioi euro)



Iturria: BBVA Research, BdEn oinarrituta

3.7 grafikoa
EAE: finantzatzeko beharra (hileroko exekuzioa. Eskualdeko BPGren %)




Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

Ekipo-ondasunetako inbertsioak, oraindik ere zalantzati

Ekipo-inbertsioaren bilakaerak argi islatzen du euskal ekonomian hein batean behatzen den jokaera zalantzati. Krisiaren hasierako fasea errazago igarotzeari eta 2010 eta 2011. urteetan suspertze handiagoko lortzeari esker (enpresen finantza-desoreka txikiagoak eta eraikuntzaren sektorearekiko mendekotasun txikiagoa izateak ere lagunduta), inbertsioak zuzenketa txikiagoak behar izan zituen, 2012. urte bukaeran krisialdiaren bigarren atzeraldi-fasean sartu aurretik. Bigarren fase horretatik irtererako orduan **ekipo-ondasunen inbertsioaren dinamismo txikiagoa hautematen da Euskadin**. Ekipo-ondasunen inportazioak 2012koen azpitik daude (ikusi 3.9 grafikoa) eta epe laburrean suspertuko diren itxuririk gabe (Espainian, aldiz, hobekuntza nabaria da). Hala, BBVA Research-en aurreikuspenen arabera eta urtarokotasuna zuzenduta, ekipo-ondasunen inportazioak, Euskadin, 3H2014an 1H2013an izandakoak baino % 4


handiagoak izan daitezke; aldiz, Espainian behatutako suspertzea % 15,1ekoa izan da. Halaber, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak Euskadin jasotako industria-inbertsioari buruzko adierazle erlatiboak ez du oraindik joera baikorra sendotu, eta azken urtean neutraltasunari eutsi dio (ikus 3.10 grafikoa).

3.9 grafikoa
Euskadi eta Espainia: ekipo-ondasunen inportazioak (1H08=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.10 grafikoa
Euskadi: industria-inbertsioa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVAren Inkestan (muturreko erantzunen saldoak, %)



Iturria: BBVA Research

Eraikuntza sektorearen susperraldia, gain-eskaintza txikia lagun

Euskadi da eraikuntza-sektoreak gehiegikeria gutxien pilatu zuen eskualdeetako bat. Hala, Sustapen Ministerioak emandako zifren arabera, saldu gabeko etxebizitza berrien stocka etxebizitza guztien % 1,1 izan zen iaz, Espainiako %2,2ko batez bestekoaren oso azpitik; hala, gain-eskaintza txikiena duen laugarren autonomia-erkidegoa da Euskadi. Herrialdeka, Gipuzkoak du saldu gabeko etxebizitza berrien ehuneko handiena (bertako etxebizitza guztien % 2); Araban, berriz, ehuneko hori 1,4koa da, eta Bizkaian % 0,5.

Euskadiko higiezinaren merkatuak duen etxebizitza berrien gain-eskaintza nahiko urria bada ere, badu eragozpen bat, izan ere, eskariaren dibertsifikazioa txikia da: atzerriko eskariaren eta bigarren etxebizitza erosi nahi dutenen pisua beste eskualde batzuetakoa baino askoz ere txikiagoa da. 2013. urtean, **etxebizitzaren eskaria aurreko urtean baino ahulagoa izan zen**, ekonomiaren uzkuertze handiagoaren eta etxebizitzari eragin zion zerga-aldaketaren ondorioz, azken horrek eragiketak 2012ko azken hilabeteetara aurreratzea ekarri bazuen.¹¹

Salmenten joera handitzen joan arren, 2013ko bigarren zatian eragiketa kopurua handituta ere, iazko salmentak asko jaitsi ziren 2012koekin alderatuta, % 28,4 gutxiago izan baitziren, Espainiako batez besteko jaitsiera (% -17,3) gaindituz. Beheraldi hori barne eskariaren erorketaren ondorio da (% -30 u/u), eta, askoz neurri txikiagoan, atzeritarrek egindakoen murrizketen ondorio, azken hauek eragiketa guztien % 2 eta % 3 artean izanik, 2013an % 13 u/u murriztu baitziren. Aitzitik, beste autonomia-erkidego batzuetako biztanleek egindako erosketak bikoiztu egin ziren iaz baina, eskariaren atal horren garrantzia ere urria denez (batez beste eragiketen % 3 inguru azken urteetan), hazkunde hori apenas nabaritu zen eskari osoan. Bestalde, **aurtengo lehen seihilekoan izandako salmentei buruzko datuak positiboak izan ziren** eskualdean, eta urte arteko hazkundea Estatuko batez bestekoa baino handiagoa izan zen (% 36 u/u vs % 27 u/u 1S2013rekiko). Euskadin gertatu hazkunde handiago horrek, neurri handi batean, oinarri efektu bati

11: Euskadin eta Nafarroan eutsi egin zitzaizkien etxebizitza arrunta erosteagatik kenkariari, gainerako autonomia-erkidegoetan 2013ko urtarrilaren 1ean desagertu ziren arren. Hala ere, BEZaren % 4tik % 10erako igoserak eragina izan zuen etxebizitzan.

erantzuten dio: etxebizitzari aplikatutako zerga-aldaketaren eta eskualdean gertatu atzeraldi ekonomiko nabarmen handiagoaren ondorioz, salmentak gehiago jaitsi dira eskualdean, 2013 hasieran batez ere (ikus 3.11 grafikoa). Hala ere, azkenaldian gorakadak izanagatik, eskualdeko salmenten maila aurreko urteetako baino askoz ere baxuagoa da.


Herrialdeka, **salmenten bilakaerak bi joera desberdin erakusten dizkigu**. Gipuzkoan eta Bizkaian, % 20 inguruko uzkuetzea gertatu zen salmentetan 2012. urtearekiko; Araban, aldiz, % 52 u/u uzkuritu ziren. Hasera batean, bilakaera desberdin horren zati handi bat arabarrek etxebizitzaren BEZa igotzean izandako erantzun handiagoak azal dezake, izan ere, 2012an % 2 handitu ziren probintzia horretako salmentak, eta, horren aurrean, beste bi probintzietan % -20ko beherakadak gertatu ziren. Gainera, urteko lehen hiruhilekoan izandako salmenten bilakaera ere oso desberdina izan zen: Araban, % 6 u/u handitu ziren soilik, eta Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, hazkundea % 70 u/u ingurukoa izan zen.

Azken urteetako joerari jarraiki, etxebizitzaren prezioaren doikuntza Euskadin Espainiako batez bestekoaren azpitik kokatu zen 2013an (% -2,3 u/u vs % -7,2, termino errealetan), aurreko urtekoa baino zuzenketa txikiagoa beraz. Nolanahi ere, ekitaldiaren amaieran, eskualdeak % 28,0ko uzkuetzea metatu zuen maximoekiko termino errealetan, Espainiakoaren azpitik (% 37,6). **2014. urtean, etxebizitzaren prezioak egonkortze joerari eutsi dio:** % -0,2 h/h (UEEZ) batez beste, Estatuko batez bestekoaren aurrean, % -0,7 u/u.

Hala ere, herrialdekako azterketak erakusten du Araban etxebizitzaren prezioak behera egiten jarraitu arren (% -5,4 2013an), Gipuzkoan eta Bizkaian prezioak iraunkor jarraitu zuela, eta, beraz, aldagai horretan egonkortasun-sintomak erakusten dituzte. 2014ko lehen sei hilekoan ere joera horri eutsi zaio, eta Araban etxebizitzaren balioak uzkuetzean jarraitu du (% -1,7 h/h UEEZ, batez beste), Bizkaian ere % -1,0 h/h-ko (UEZZ) zuzenketa izan da eta Gipuzkoan % 0,3 (UEEZ) handitu da.


Jarduera eskaintzaren aldetik aztertuz aldiz, 2013an bisatuak % 12 u/u uzkuritu ziren EAEn, Espainian (-% 22 u/u batez beste) edota aurreko urtean baino dexente gutxiago. Horrez gain, joera hori berretsi egin da, urte honetako lehen zazpi hilabeteetan bisatuak % 7,0 u/u gehitu baitziren, Espainiako % 1,4 u/u ko batez bestekoaren gainetik (ikus 3.12 grafikoa). Alde horren zergatia Bizkaian urtariletik uztaileira bisatuek izandako hazkunderan dago, % 27 u/u, Gipuzkoan egonkortu eta Araban, berriz ere, gutxitu egin baiziren.

3.11 grafikoa
Euskadi: etxebizitzaren salmenten urte arteko hazkunderari egindako ekarpena (p.p.-tan)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

3.12 grafikoa
Euskadi: etxebizitza berriak eraikitzeak bisatuak (UEEZren datuak)




Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

Ondoz ondoko hiru urtetan murrizketak izan ondoren, 2014an lizitazioek gora egingo dute urtearen lehen zatiko datuak medio


2013an herri-lanetara zuzendutako aurrekontua 2012koa baino txikiagoa izan zuten hiru eskualdeetako bat da Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroarekin eta Galiziarekin batera. Ondoz ondoko hiru urtetan murrizketak izan ondoren, 2013an lizitazioak urritu egin ziren berriro ere, % 60 2012koarekin alderatuta, eta 480 milioi eurokoa izan zen, azken 25 urteotako txikiena. Lan motari dagokionez, ingeniari zibilera zuzendutako aurrekontua % 65 murriztu zen 2012koarekin alderatuta eta eraikuntza arlokoa, berriz, % 42. Bestalde, aurreko urteak baino hasiera hobea izan du 2014ak. **Urteko lehen zazpi hilabeteetan lizitazioa % 130 hazi da u/u** (Espainiako batez besteko % 68ko u/u hazkundea aise gaindituz), eta 524 milioi eurora iritsi da, 2013ko aurrekontu osoa gaindituz. Lan motari dagokionez, 2014ko urtarrietik uztaile bitartean, obra zibilen arloko aurrekontua, 2013an aldi horretan izandakoa halako 2,5 izan da, eta eraikuntzaren atalekoa, berriz, 1,6 halako (ikus 3.13 grafikoa). Dena den, herri-lanen bolumena oso urrun dago 2006. urteotik, garai hartan lizitazioak 2.876 milioi eurora iritsi baitziren aurrekontuetan.

3.13 grafikoa
Herri-lanak lan motaren arabera: urte arteko hazkundeari egindako ekarpena (urt-uzt 14, p.p.)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

3.14 grafikoa
Euskadi: lizitazioen aurrekontua eragileen arabera (milioi euro)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

Bereizketa erakunde finantzazailen arabera eginez gero, ikusiko dugu 2013an herri-lanen arloko proiektu berrien lizitazioan Estatuak izandako parte-hartzea zenbateko osoarekiko soilik % 1,4koa izan zela; azken urteetako ekarpen txikiena da, 2012ko zenbatekoarekin alderatuta % 96 murriztu baitzen. Lurralde-erakundeek, berriz, berriz, % 55 (u/u) murriztu zuten herri-lanetara zuzendutako aurrekontua, 2012koarekin alderatuta. Urtean Euskal Autonomia Erkidegoan AHTrako lanen lizitazio berririk ez izateak eta EAEko gobernuak gastuak murriztu izanak azaltzen dute 2013ko aurrekontuetako beherakada. Izan ere, aurreko urteetan gertatuaren kontrara, 2013an trenbidearen eraikuntzak lizitazioaren arloko sail garrantzitsuena izateari utzi zion, eta herri-lanen aurrekontuaren zatirik handiena hirigintza-lanetara, lan hidraulikoetara eta errepideetako lanetara zuzendu zen; hiru kasuetan, gehien-gehienak tokiko administrazioek finantzatuak. Etxebizitzaren arloko lanen lizitazioak ere izan ziren, neurri apalagoan bada ere eta, kasu horretan, autonomia-administrazioek finantzatu zituzten ia osorik.

2013ko gutxienekoaren ostean, **2014ko lehen zazpi hilabeteetan Euskal Autonomia Erkidegoko herri-lanetan Estatuak nahiz lurralde-erakundeek aurrekontuetan ekarpen handiagoa egin dutela sumatzen da, 2013ko epe bereko datuekin alderatuta.** Urte honetako urtarrietik uztaile bitartean, lizitazioei


dagokien aurrekontu osoaren % 27,4 Estatuaren ekarpena izan zen, eta azken 10 urteotako batez besteko ekarpena gainditzen du ehuneko horrek. Abiadura handiko Vitoria/Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Frantziako muga linearen barnean, Arrasate eta Bergara artean kokatutako plataformaren eraikuntza-proiektuaren lizitazioari zor zaio hori (133 milioi eurotik gorako zenbatekoaren truke). Lurralde-erakundeei dagokienez, lehen seihilekoan errepideetako lanei, hirigintza-lanei eta lan hidraulikoei dagozkien proiektuak nabarmendu dira.

EAEko kanpo-sektorearen ahulezia erlatiboak baldintzatzen du susperraldiaren abiadura

EAEko esportazioak apenas hazi ziren 2013an (%+0,7 erreala), 2012an izandako hazkunde apalaren ostean (+%1,8). Hortaz, EAEk bilakaera erlatibo okerragoa izan zuen bi urteotan (ikusi 3.15 eta 3.16 grafikoa). **Termino nominaletan esportazioak %2 gutxitu** ziren prezio erlatiboaren bilakaera ezkorragatik, Espainian izandako %5,4ko hazkundearekin alderatuta. Sektorez sektore aztertuta, esportazio nominalen jaitsiera gehienetan jaitsierak edo egonkortzeak eman izanak azaltzen du. Semimanufakturrek soilik egin zuten gora, %+3,8 nominala, ekarpen positibo baina txikia eginez kanpo salmenten hazkunderari.


Azken urteotan, kanpo-eskariaren ekarpena positiboa izan da EAEko ekonomiaren hazkunderako, ez baitu etenik izan 2008tik 2014ko lehen hiruhilekora, urte arteko zenbatekoei dagokienez, aurtengo bigarren hiruhilekoan ekarpen negatiboa erakutsi duen arte. 2009an esportazioek behera nabarmen egin zutenean ere, inportazioen bilakaerak kanpo sektorearen saldo garbi positiboa eragin zuen hazkunderari begira. Aitzitik, 2009ko lehen hiruhilekoan esportazio errealak, EAEn nahiz Espainian, krisitik azkar suspertu baziren ere (ikusi 3.15 grafikoa), **2010. urtearen erdialdetik EAEko esportazio errealek Espainiakoek baino dinamismo apalxeagoa** erakutsi dute; hazkunde motelago horrek kanpo-sektoreak hazkunderari egindako ekarpena pixkana murrizten joatea ekarri du.

3.15 grafikoa
Euskadi eta Espainia. Esportazio errealak (08-mar=100; UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.16 grafikoa
Euskadi eta Espainia: esportazio errealak (h/h; UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


Euskal esportazioak zein herrialdeetara zuzentzen diren kontuan hartuta, 2013an **Europako merkatu nagusietara zuzenduak murriztu egin zirela** esan daiteke, eta beheraldi nominala izan zen salmentetan, zehazki Frantzia (-5,3), Alemanian (-0,5) eta, bereziki, Erresuma Batuan (-13,4). Horrez gain, **EAGLES¹²** herrialdeetara egiten diren esportazioak ere moteldu egin ziren (ikusi 3.17 grafikoa): merkatu

12: EAGLES-BBVA: Emerging and Growth-Leading Economies, Garatze bidean diren ekonomiak eta hazkunderaren liderrak. Brasil, Txina, India, Indonesia, Mexiko, Errusia, Turkia.

batzuetan, Brasilen edota Txinan, adibidez, salmentak biziagotu egin baziren ere, murrizketa nabarmenak ere izan ziren, hala nola Mexikon (% -23) eta Turkian (% -17). Itxura batean garatze bidean diren merkatuetara zuzendutako salmenten bilakaera herrialde bakoitzaren jokabideak azaltzen ez duenez, beste faktore batzuek, agian eskaintzarekin lotura estuagoa dutenek, izan dezakete zeresanik bilakaera horietan.

3.17 grafikoa

Esportazioen hazkundera 2013an vs 2008tik 2013ra hazkundeari egindako ekarpenak (bolaren neurria: esportazio nominalen pisua 2013an)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


Tradizioz, Euskal Autonomia Erkidegoa esportazioetan dibertsifikazio geografiko handia erakutsi izan duen erkidegoa izan da, eta, horri esker, bertako BPG hobetu du biztanleko¹³. Hala ere, arlo honetan, erkidegoaren jarduna Espainiak osotara izan duena baino nabarmen txikiagoa izaten ari da krisialdian zehar, eta sektore esportatzailearen jokaera okerragoa azalduko lukeen faktoreetako bat litzateke, hain zuzen, hori. Finean, europar ekonomiek jasan dituzten zailtasunen ondorio gisara, **Espainiak EB-27ra egindako esportazioen pisua 4 p.p. baino gehiago murriztu da 2010etik**, eta batez ere Asiara eta Afrikara egindako esportazioak indartu dira trukean. **Aitzitik, epe horretan Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, garrantzia irabazi dute EB-27ra (+0,3 p.p.) eta Ertamerikara eta Ipar Amerikara (+1,5 p.p.) zuzendutakoek, EBtik kanpoko Europako herrialdeetara (-1,2 p.p.) eta Asiara (-0,8 p.p.) zuzentzen direnen kaltetan (ikusi 3.18 grafikoa).**

EAEko eta Espainiako esportazioen sektorez sektorekako bilakaera alderatzean ere, bilakaera desberdina ikusten da: EAEko esportazioetan, energiarekin lotutako produktuek pisua handitu dute (batez ere petrolioaren eratorriak eta horrek inportazioen hazkundera ere badakar berarekin), bai eta elikagaiekin (esportatutako ondasun guztien % 5 ozta-ozta), eta, neurri txikiagoan eta Espainian gertatzen denaren kontrara, automobilgintzaren sektoreak ere. Aitzitik, 2010etik 2014ra, bitarteko manufacturen pisua Espainian eta EAEn, bietan, arindu da.

13: Ikusi argitalpen honetako 2. errekoadroa.

3.18 grafikoa


Euskadi eta Espainia: aldakuntza esportazioen ekarpenean, gune geografikoen arabera. 2010 vs 2014ko lehen sei hilekoa (%)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.19 grafikoa

Euskadi eta Espainia: aldakuntza ondasunen esportazio nominalari egindako ekarpenetan, sektoreka 2010 – 2014ko lehen sei hilekoa (% u/u)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Euskal Autonomia Erkidegoan, bereziki aintzat hartzekoak dira ekipo-ondasunak. Kasu honetan, Espainiaren esportazioak % 25 igo ziren 2010etik 2014ko lehen sei hilekora bitartean, Euskadin (% +13) baino 12 p.p. gehiago. Diferentzial horren azalpena garraio-materialen esportazioetan gertatu den hazkunde-diferentzian dago osoki, gainerako azpisektoreetan antzeko bilakaera izan baizuten EAE eta Espainiako esportazioek (ikusi 3.20 grafikoa). Orotara, **garraio-materialen Espainiako esportazioetan EAEk duen garrantzia murriztu egin da: 2010ean % 22,3 ziren; iaz, % 14,3**, eta aurtengo lehen sei hilekoan, % 13,7.


3.21 grafikoa Espainiaren kasuan garraio-materialetan ikusi den 25 p.p.-ko hazkundera aletzen da; salgaiak errepidez garraiatzeko ibilgailuek 19 p.p.-ko ekarpena adierazten dute, eta aireontziek, berriz, 11 p.p.-koa. Euskadiren kasuen, sumatu den 23 p.p.-ko beherakadatik 21 p.p. itsasontzien atalari dagozkio, eta, modu osagarrian, aireontziek 5 p.p. kentzen dizkiote hazkunderari. Itsasontzietako esportazioen ataleko murrizketa tax lease finantzaketa-sistemak izandako eragozpenekin lotuta egon daiteke; aldiz, **aeronautikaren sektorean Euskadik duen parte-hartzeak izandako murrizketa bereziki kezkarria da, goi-teknologia handiko eta I+G maila handiko sektorea izaki.**

Azkenik, eskualdeen arteko merkataritzaren ikuspegitik, **Euskaditik Espainiako gainerako eskualdeetara egindako salmentetan**, 1H2010etik 2012ko azken hiruhilekora **% 28ko murrizketa izan dela egiaztatu da** (ikusi 3.22 grafikoa), ondoren pixkana goranzko bidea berrekiteko.

Hortaz, esportazioen dibertsifikazio geografikoan zuen abantaila murriztu den bitartean, EAE produktuen araberrako dibertsifikazioa handitu da, garrantzi-suenak zaizkion produktuen salmenten dinamotasun txikiagoagatik. **Hazkunde aurreikuspen apalagoak dituzten herrialdeekiko menpekotasuna gutxitzea eta dibertsifikazio geografikoa berriz handitzea dira, hortaz, erronka nagusiak, esportazioen hazkunde tasa esanguratsuak berreskuratzeko.**

3.20 grafikoa


Euskadi eta Espainia: ekipo-ondasunen esportazioek urte arteko hazkundeari egindako ekarpena, azpisektoreka (2010 vs 1S2014)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.21 grafikoa


Euskadi eta Espainia: garraio-materialen esportazioek urtez urteko hazkundeari egindako ekarpena, produktuka (2010 vs 1S2014)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.22 grafikoa

Euskadi eta Espainia: eskualde arteko merkataritza (mar-10=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Cemprede-n oinarrituta


Hortaz, 2013an euskal esportazioek izan duten jardun erlatibo makalak hainbat faktore ditu atzean: alde batetik, euskal esportazioetan nabarmendu izan diren **zenbait sektorek** krisian etengabe izan duten uzkurraldi garrantzitsua (garraio-materialek, adibidez); eta, bestetik, industria-ondasunen esportazioek oro har izan duten jokaera okerragoa, **Europako merkatuen atzeraldiari lotuta**; eta, azkenik, **merkatu jakin batzuetan**, Mexikon eta Turkian, esaterako, sortu diren zailtasun zehatzak; ez dirudi merkatuotan euskal esportazioek izan duten murrizketa helmuga merkatuaren uzkurduraren ondorio izan denik.

2014 lehen seihilekoan jasotako datuek joera hobea iradokitzen dute (ikusi 3.15 eta 3.16 grafikoa). Dena den, sektorekako bereizketak nahiko argi islatzen du 2014ko lehen seihilekoan kanpoko salmentetan izan den **susperraldia ia erabat esportazio energetikoek azaltzen dutela**. Fuel-oila erreduzitzeko Muskizen Petronorrek ezarri duen unitate berriak, Euskadiren historian izan den inbertsio industrial handiena izan denak, hurrengo hiru hilekoetan esportazio energetikoen hazkundeak gorantz jarraituko duela

aurreikusteko bidea ematen du. Dena den, osagai hori kanpoan uzten badugu, **euskal esportazioen hazkunde garbirik ez da oraindik apenas ikusten**, osagai garrantzitsuenaren ekarpen maila apur bat negatiboa izanik, hots, ekipo-ondasunen ekarpena, horixe baita bertako sektore nagusia (ikusi 3.23 grafikoa).

3.23 grafikoa

Euskadi: ondasunen esportazio nominalak hazkundeari egindako ekarpena sektorez sektore (% u/u)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Lan-merkatuaren susperraldi jarrai eta esanguratsua ez da oraindik iritsi

Euskadiko lan-merkatuan doitze-prozesuak jarraitu egin zuen 2013. urtean, eta Espainiakoa baino nabarmenagoa izan zen gainera. Urte arteko afiliatuen galera % 1,6koa izan zen Euskadin eta Espainian, berriz, % 0,9koa. Hala ere, eta **bizkortzen doan ekonomia bati dagokion lez, afiliatu kopuruaren murrizketari dagozkion hiruhileko aldakuntza tasak txikiagotzen joan ziren pixkana, urtearen azken aldera positiboak izateraino** (ikusi 3.24 grafikoa). Gainera, 2013an erregistratutako langabezia gehiago hazi zen Euskadin Espainian baino eta, nahiz eta urteko azken hiruhilekoan murriztu, % 2,1 hazi zen (u/u).


Biztanleria Aktiboaren Inkestak, INEk argitaratutakoak, Gizarte Segurantzako afiliazioak islatutakoa baino bilakaera apur bat negatibagoa erakusten du. Zehazki, urtarokotasun-aldakuntzak zuzenduta, ez da lanpostuen sorrerarik sumatzen 2014ko bigarren hiruhilekora arte. Zerbitzu pribatuak eta, neurri txikiagoan, zerbitzu publikoak lirateke enpleguaren bilakaeran ikusi den hobekuntza txiki horren euskarriak, 2013an lanpostuen suntsitzean zerikusi handiena ere horiek izan ostean (ikusi 3.25 grafikoa). Bestalde, afiliazioa batez beste % 0,15eko (h/h, UEEZ) erritmoan hazi da 2014ko lehen hiru hiruhilekoetan, beti ere Espainian ikusitako % 0,5eko (h/h) erritmotik urrun.

Euskadiko enpleguaren % 3,1eko uzkuertzea, kontabilitate nazionalaren arabera, 2013an soldatapekoen ordainsari erreala % 1,1 hazi izanak ere bultzatuko zuen ziurrenera (ikusi 3.27 grafikoa). Horrela, 3.28 grafikoa erakusten duenez, **Euskadiko lan-kostuek ez dute islatzen Espainian ikusten den moderaziorako joerarik. 2011tik, kostuak batez bestekoa baino 2 p.p. gehiago hazi ziren Euskadin** (2 p.p. gehiago 2007tik), industriak presentzia handia duen beste zenbait eskualdeetako gaineratik (adibidez, Nafarroakoak baino 6 p.p. gehiago). Horrek sektore esportatzaileen zailtasunak edota zenbait jardueren deslokalizazioa bultzatuz ditzake.

Aurreko seinale horiek langabezia-tasan laburbiltzen dira eta ez da inolako aldaketa-zantzurik, nahiz eta aldagai horretan aldaketa suma daiteken Espainian azken urtean (ikusi 3.25 grafikoa). Bilakaera hori are


adierazgarriagoa da, aintzat hartuta biztanleria aktiboaren gainbehera handiagoa ere gertatu dela EAEn: % -2,2 u/u, 2014ko ekainean (% -3 gainditzen du gizonezkoen artean), Espainiako % -1,4ren aldean.

3.24 grafikoa
Gizarte Segurantzako batez besteko afiliazioa (% h/h, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren oinarri hartuta

3.25 grafikoa
Euskadi: enpleguaren bilakaera eta hazkunderari egindako ekarpena (% h/h, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.26 grafikoa
Langabezia-tasa (% h/h, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.27 grafikoa
Euskadi: soldata errealak, enplegua eta BPG (aldakuntza %, UEEZ datuak)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.28 grafikoa.

Lan-kostuei buruzko hiruhileko inkesta (2007=100)

Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2014-2015erako agertokia: euskal ekonomia berriz hazkunde jarraituaren bidean

Atal honen hasieran aurreratu dugunez, 2013an joera-aldaketa bat izan zen eskualdeko jardueraren bilakaeran. Espainian sumatu dena baino erritmo motelxeagoan bada ere, **Euskadi, hurrengo urteei begira, zikloaren hedapen-fasean sartzen ari dela islatzen dute eskura dauden adierazleek**. Ildo horixe erakusten dute bai MICA-BBVAk eta bai Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestak ere (ikus 3.1 eta 3.2 grafikoa).

Hainbat faktore daude hurrengo urteetako hazkunde jarraitu horretara itzultzearen alde. Lehenik eta behin, **konfiantzaren hobetze orokorra** eta kreditu-fluxu berriak suspertzea, moneta-politika hedakor bati lotuta. Bigarrenik, **barne-eskariaren hazkunderako ingurumari hobea**, zergak finkatzeko ahalegin txikiagoa egin behar izanaren, eraikuntzaren eta beste zenbait sektoreren ekarpen negatibo txikiagoaren eta enpresen eta familien zor gutxitze prozesuan aurreratutakoaren ondorioz. Aldiz, bigarren etxebizitza eskuratzeko Euskadiko egoiliarren eskariaren zati bat beste autonomia-erkidego batzuetara zuzentzen denez, etxebizitzaren salerosketen hobekuntza txikiagoa izango da, eskari turistiko handiagoko zenbait lurraldetan ikusitakoa baino. Horrez gain, lan-merkatuaren suspertze motelagoak kontsumo pribatuaren dinamismo erlatibo txikiagoa ere ekar dezake.

Bigarrenik, **Espainian eta Europan barne-eskaria suspertzeak indartu egin behar lituzke kanporako salmentak**. Bezero gisa Europako merkatuek duten garrantzia (EDBren gunea osatzen duten herrialdeak eta Espainiako gainerako lurraldeak) kontuan hartuta, ekonomia horien susperraldia Euskadiko jarduera indarbertzeko euskarri garrantzitsua da. Gainera, truke-tasan espero den depreziazioak abantaila gehigarri bat adierazten du. Dena den, eta lehen ere aipatu denez, ekonomia suspertzeari begira kanpo-sektorearen ekarpenaren gainean hainbat zalantza sortu dira. Alde batetik, orain arte eskura dugun informazioak oraindik ez duelako islatzen esportazioetan espero den susperraldi hori, batez ere, hazkunde handieneko merkatuei dagokienez. Bestetik, Euskadiko kanpo-salmentetan garrantzitsuak diren zenbait sektorek lotura estua dute inbertsio publiko eta pribatuaren bilakaerarekin, eta horrek, eroslearen aldetik zorpetze-ahalegin esanguratsua eskatzen du (ontzigitza sektorean, kasu) edota inbertsio publikoko planak berreskuratzea (berbarako, trenbide garraiorako materiala). Europaren erdiguneko herrialdeetan, bi aukera horiek zailak dirudite epe laburrean. Baina kanpo merkatuen dinamismo orokorrak eta, bereziki, garatze bidean diren


herrialdeetakoak munduko hazkundeari indartsu eutsiko diote, eta horrek, truke-tasaren depreziazioarekin batera, esportazioak hobetzen lagundu beharko luke.

Beraz, hori guztia aintzat hartuta, **agertoki probableenean, euskal ekonomia % 1,1 inguru haziko da 2014n, eta % 1,8 2015ean**, bi kasuetan Espainiako batez bestekoa baino zertxobait gutxiago.

Epe erdira, eta orain kanpo-sektorean arazo horiek ikusi badira ere, euskal ekonomiak baditu zenbait ezaugarri desberdin, suspertze gaitasunaren alde joka dezaketenak. Azaldu ditugun koitunturaren esparruko desoreketan posizio hobea edukitzeaz gain, ekonomia irekiagoa du Euskadik, eta hornidura hobeak giza kapitalean nahiz arlo teknologikoan. Enpresa ertainen tamaina handiagoak¹⁴, I+G arloko ahalegin handiagoak eta eduki teknologiko altuko lanpostuen proportzio handiagoak aukera ematen diote ekonomia honi lan-arloan batez bestekoa baino ageriko produktibitate maila handiagoak izateko (ikusi 3.32 grafikoa), bai eta langabezia-tasa txikiagoa izatekoa ere.

3.29 grafikoa


Euskadi. Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta. Muturreko erantzunen saldoa, %



Iturria: BBVA Research

Gráfico 3.30

Autonomia-erkidegoetako Desoreken Adierazle Sintetikoa (DAS)




Iturria: BBVA Research, estatutako iturrietan oinarrituta

14: Xehetasun gehiagotarako, ikusi *Zertan den Euskadi, 2013ko lehen sei hilekoa*, hemen: https://www.bbvaresearch.com/wp-content/uploads/2014/08/1304_Zertandeneuskadi1.pdf

3.31 grafikoa.


Beste Sektore Egoiliarren (BSE) zorpetze ratioaren aldaketa (BSEen kredituen eta gordailuen arteko saldo garbia, BPG nominalaren gaineko %tan)



Iturria: BBVA Research, BdE eta INEn oinarrituta

3.32 grafikoa.

BPG, landun bakoitzeko (Espainia = 100), eta langabezia-tasa (2013)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Langileko produktibitatea hobetzea eta lan-arloko eta demografiaren joerak zuzentzea, euskal ekonomiaren erronka

Datozen urteetan euskal ekonomiak baditu zenbait erronka aurrez aurre. Berauen aztertzeko, biztanleko BPGren faktorekako deskonposaketa hau erabilgarri gerta daiteke:

$$[EC. 1] \quad BPG_{pc} \equiv \frac{BPG}{Okup} * \frac{Okup}{Akt} * \frac{Akt}{Pop(16-65)} * \frac{Pop(16-65)}{Pop}$$

Identitatearen lehen osagaia **produktibitatea** da (BPG landun bakoitzeko); bigarrena lan-merkatuaren egoeraren adierazlea da, **okupazio-tasa** (landunak zati populazio aktiboa); hirugarrena, berriz, lan-merkatuari dagokion partaidetza-tasa da, **jarduera-tasa** (biztanle aktiboak zati lanerako adinean dagoen populazioa); eta, azkenik, **osagai demografiko bat** (lanerako adinean dauden biztanleriaren ehunekoa populazio osoarekiko).

3.33 grafikoa deskonposaketa horren emaitzak adierazten ditu, Espainiako ekonomia orokorrarekin alderatuta. **Euskadik ia etenik gabe hobetu du azken urteotan Espainiarekiko posizio erlatiboa biztanleko BPGren esparruan.** Prozesu horretan bi abantaila nabarmendu dira: landun bakoitzeko BPG altua eta enplegu tasaren bilakaera hobea ahalbidetu duen lan merkatua. Aldiz, jarduera-tasak eta faktore demografikoak, Espainiako batez-bestekoaren inguruan kokatu arren, epe luzean ez dute horren joera aldekoa.

Euskal ekonomiaren produktibitatea da, azken hiru hamarkadetan Espainiako batez-bestekoaren % 110 - % 120 artean kokatua, BPG per capitan Euskadik duen aldearen oinarri nagusia. I+G alorrean egindako ahalegin jarrai handiagoak edo sektore teknologikoetan duen enplegu proportzio altuagoak giltzarri dira alde hori denboran mantentzeko, iraganean bezala etorkizunean ere.

Bestalde, enplegu-tasak batez-bestekoarekin berdintzeko joera zekarren 1980tik krisiaren haserara arte. Joera horren pean, ordea, dinamikotasun gutxiko lan-merkatua datza: enpleguaren hazkunde txikiagoa, 80

hamarkadan (euskal ekonomiaren errekonbertsio industrialaren garaia) nahiz hedapen fasean (eraikuntzaren boom-aren eta turismoaren hazkundearen eragin txikiagoagatik), populazio aktiboaren hazkunde txikiago batekin orekatu zen. Produktibitate txikiko zerbitzuen garrantzi txikiagoak (turismoa kasu) edo eraikuntzako enpleguaren pisu txikiagoak, giza kapital maila handiagoarekin batera, azaltzen dute Euskadik krisian enplegu galera txikiagoa izatea eta, ondorioz, enplegu tasaren bilakaera ez hain negatiboa.


Azkenik, osagai demografikoari dagokionez, lan egiteko adinean den biztanleria egonkor mantentzen da populazio osoarekiko, Espainiako baino pittin bat hobea, baina epe erdian okerrera egiteko arriskua da euskal populazioaren zahartze erlatiboa medio.

Euskal ekonomiak aurrez aurre dituen erronkak hauek neurriak eskatzen dituzte araudi mailan. Lehenik eta behin, **enplegu politika aktiboen** erreformak erkidego autonomoen emaitzen arabera baldintzatzen ditu baliabideak. Hortaz euskal erakundeek ere eskumenak baliatu behar dituzte emaitzak neurtu eta gardentasunez agertzeko.

Gainera, **Euskadik merkatu batasuna aldeketzen duten neurrien prozesutik onura garrantzitsuak lor litezake**, enpresak erkidegoan jardun daitezten burutu beharreko eginbideak sinpletuz. Zentzu horretan, badira hobetu daitezken alorrak, hala nola sektore turistikoaren erregulazioa edo merkatal ordutegiena, baina hobekuntza hauek beste zenbait sektoretan ere gertatu behar dira enpresen jardun kostuak gutxitzeko. Besteak beste, Situación España¹⁵-n aipatuenez, Espainiak zerbitzu alorreko araudian praktika egokienak aitzina ezarri izan balitu, % 20 inguru handiagoak ziratekeen bere esportazioak. Araudian hobekuntzarako tarte handia dagoenez, kanpo-sektorearen bultzada esanguratsua espero liteke, zerbitzuen merkatuan lehia handitzeak lagunduta.


Beraz, agerkari honen azken edizioan aipatutako erronkak, produktibitatea irabaziak lortu, turismoaren urtarokotasuna gutxitu eet zorpetze maila gutxitu, bere hortan dira. Laburbilduz, etorkizunean BPG per capitaren hazkunde sendo, egonkor eta jarraitua bermatzeko, eskualdeak hiru atal nagusitan egin behar du indar: lehenik, indarrean dirauten desorekak konpontzea funtsezkoa da, batik bat lan merkatuan eta zorpetzean. Bigarrenik, giza kapital, kapital fisikoa nahiz teknologikoa hobetzeko politikak ezarri behar dira. Eta hirugarrenik, eskualdea barne- zein atzerri-inbertsiorako erakargarriago egingo duten neurriak hartu behar dira.

3.33 grafikoa
Biztanleko BPGren deskonposaketa Euskadin (Espainia =100)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.34 grafikoa
Euskadi: BPGren hazkunde (%) (u/u)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

15: Ikusi 2014ko bigarren hiruhileko Situación España, hemen eskuragarri: https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2014/05/1405_Situacion_Espana1.pdf

3.1 koadroa

Espainia: BPGren hazkudean AA. EE.ko. (%)

Autonomia Erkidegoa	2011	2012	2013	2014(p)	2015(p)
Andaluzia	0,2	-2,1	-1,5	1,5	2,1
Aragoi	-0,2	-1,9	-1,2	1,3	2,4
Asturias	0,4	-2,1	-2,1	0,8	1,7
Balearrak	1,0	-0,8	-0,4	1,4	2,0
Kanariak	0,4	-1,4	-0,4	2,0	2,6
Kantabria	-0,8	-0,9	-1,9	0,9	2,0
Gaztela eta Leon	1,1	-2,0	-2,1	1,4	2,2
Gaztela Mantxa*	0,1	-3,1	-1,1	1,0	2,3
Katalunia	-0,4	-1,3	-0,8	1,1	1,8
Extremadura	-0,9	-2,8	-1,4	1,2	2,3
Galizia	-0,5	-0,9	-1,0	1,4	2,7
Madril	0,7	-1,6	-1,2	1,8	2,8
Murtzia	-1,0	-2,0	-1,7	0,7	2,5
Nafarroa	1,4	-1,6	-1,5	1,8	2,5
EAE*	0,2	-1,3	-1,9	1,1	1,8
Errioxa	0,9	-2,0	-1,8	1,4	2,7
Valentzia	-1,1	-1,6	-0,8	1,1	2,0
España	0,1	-1,6	-1,2	1,3	2,3

*: EAE eta Gaztela Mantxako aurreikuspenak eguneratu egin dira.
 (p): aurreikuspena. Aurreikuspenen itxiera data: 2014ko abuztuak 4.
 Iturria: BBVA Research INEn oinarrituta.

1. errekoadroa. Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Euskadin 2014ko 3. Hiruhilekoan: ikuspegi positiboari eutsi zaio, baina aurreko hiruhilekoarekiko egonkortuta

2010eko bigarren hiruhilekotik, BBVA Research-ek eskualdeko ekonomia aztertzeo tresna garrantzitsua du Euskadirako, hiru hilean behin argitaratzen dena. Jarduera ekonomikoari buruzko BBVAren inkestak, bankuko bulego-sareko langileei zuzendutakoak, bulego bakoitzaren eragin-eremuan jarduera-aldagai nagusiek izan duten bilakaerari buruz eta epe laburrera begira duten aurreikuspenei buruz galdetzen du.¹⁶

2014ko hirugarren hiruhilekoari buruzko inkestaren emaitzek Euskadiko jarduera ekonomikoa dinamizatu egin dela adierazten dute (erantzunen saldo garbia 19 p.p.-koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gutxiago), eta bat dator hori BBVA Research-ek eskualderako adierazitako agertokiarekin (ikus 3.29 grafikoa testu orokorrean). Inkesta egin dutenen % 22k uste du azken hiruhilekoan jarduerak gora egin duela, aurreko hiruhileko % 25aren aurrean. Suspertzea motela da, eta horixe adierazten du inkestari erantzun diotenen % 74ek jarduera egonkor ikusteak, baina soilik % 3k ikusten du atzeraldia jardueran, eta duela urtebete % 16koa zen ehuneko hori.

Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspen ekonomikoa onak dira baina azken hiruhilekoan pittin bat txartu dira: inkestari erantzun diotenen % 31k uste du jarduerak hobera egingo duela, eta % 64k uste du aurreko hiruhilekoarekiko egonkor jarraituko duela (saldoa: +26 p.p., ikusi R.1 koadroa).

Hiruhilekoan hobekuntza handiena agertzen duten adierazleak turismoa, saldo garbi positibo handia erakutsi duena (+56 p.p., hiruhilekoan 21 p.p. hobetu ondoren), eta zerbitzuetako inbertsioa dira (+22 p.p.-ko saldoa, 7 p.p. hobetu ondoren). Esportazioek, beren aldetik, joera positiboa erakusten dute orain ere, baina motelagoa (7 p.p.-ko saldo positiboa, hiruhilekoan 16 p.p. txartuta), eroldaren %78k egonkor ikusten baititu.


Oro har, **industria-jarduerarekin lotura handiena duten adierazleak** (industria-ekoizpena, eskari-zorroa eta stock maila) **saldo positibo txikiak agertzen dituzte, urte arteko nola halako hobekuntzekin, eta erantzunen % 6** inguruk beheranzko joera adierazten dute (ikus R.1 koadroa); aldiz, industria-enpleguak, eta, nagusiki, eraikuntzaren sektoreak txikituz doazen saldo garbi negatiboak agertzen dituzte (-8 p.p. eta -12 p.p.). Industria sektorean salbu, inbertsioaren ikuspegi arinki baikorra dute inkesta egin dutenek, zerbitzu sektorean hobea dena.

Azken batean, Euskadiko Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA inkestak suspertze progresiboaren agertokia berresten du, zailtasunak zailtasun (ikus R.1 grafikoa). Sektorekako adierazleak islatzen dutenez, kanpo-eskariak (esportazioak, turismoaren laguntzaz) eta zerbitzuek sustatu dute nagusiki suspertze hori, eta indar txikiagoa izan dute industria-sektoreak eta eraikuntzaren sektoreak.

¹⁶: Inkestari buruzko zehaztasun gehiago ezagutzeko, ikusi: Espainiako egoera, 1. errekoadroa, jarduera ekonomikoari buruzko BBVAren inkesta. Ekonomiaren egoeraren jarraipen goiztiarra egiteko tresna bat. Espainiako egoera, 2014ko 2. hiruhilekoa. Hemen eskura daiteke: <https://www.bbva-research.com/public-compuesta/situacion-espana/>

R.1 grafikoa

Euskadiko jarduera ekonomikoari buruzko BBVAren inkesta. Erantzunen saldoak. Hautatutako aldagaiak



Iturria: BBVA Research

R.1 koadroa

Jarduera ekonomikoari buruzko inkesta. Euskadiko emaitza orokorrak

(erantzunen %)	2014ko 3. hiruhilekoan			2014ko 2. hiruhilekoan			2013ko 3. hiruhilekoan		
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Handitu	Egonkor	Txikitu	Handitu	Egonkor	Txikitu
Jarduera ekonomikoa	22	74	3	25	70	5	12	71	16
Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspena	31	64	5	39	60	2	19	67	14
Industria-ekoizpena	10	83	7	14	80	6	8	82	10
Eskari-zorroa	11	83	6	24	71	5	15	74	12
Stock maila	5	92	3	6	87	7	4	81	15
Lehen sektoreko inbertsioa	11	87	3	6	86	8	5	78	18
Industriako inbertsioa	8	83	8	10	84	6	6	83	11
Zerbitzuetako inbertsioa	26	71	4	23	69	8	9	67	25
Eraikuntza berriak	22	66	12	19	63	17	5	59	36
Industriako enplegua	6	81	14	7	77	17	11	61	27
Zerbitzuetako enplegua	17	73	10	25	70	5	13	52	35
Eraikuntzako enplegua	4	79	17	4	74	22	0	58	42
Prezioak	11	77	12	9	75	16	18	73	9
Salmentak	17	69	14	16	72	12	4	62	34
Turismoa	60	37	3	39	58	4	43	48	10
Esportazioak	14	78	7	25	73	2	34	59	6


(*)Muturreko erantzunen saldoa
Iturria: BBVA

2. errekoadroa. Esportazioen dibertsifikazioa, eskualdeen hazkundera azaltzeko faktore¹⁷

Ondasunen esportazioek BPGren gainean duten pisua¹⁸ nabarmen handitu da autonomia erkidego gehienetan 2009. urteaz geroztik, eta, batez beste, % 20tik gorakoa da (ikusi R.2.1 grafikoa). Lan kostuak murrizteko ahaleginak, ekoizpenean egindako hobekuntzak eta esportazio espainiarrak goraka ari diren merkatuetara dibertsifikatzeko estrategia izan dira sektorearen hazkunderaren zutabe nagusiak¹⁹, jarduera ekonomikoaren elementu dinamizatzaile nagusi bihurtuta²⁰.

R.2.1 grafikoa

Ondasunen esportazioek autonomia erkidegoen BPGren gainean duten pisuaren bilakaera²¹



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Koadro honek BBVA Research-en (2014) emaitzak laburtzen ditu, eta helburu nagusia honako hau zehaztea da: aipatu dugun esportazioen hazkundera horretatik zenbat den kanpo-sektorearen dibertsifikazioaren ondorio, eta zenbatean bultzatu duen prozesu horrek biztanleko BPGren hobetzea, bai krisiaren aurreko aldiari bai ondorengoan.

Azterketa horretatik ondorioztatzen diren **emaitza nagusiak** ondorengo puntu hauetan laburbil daitezke:

- Autonomia erkidegoek esportazioak dibertsifikatzeko prozesu bat garatu dute, eta prozesu hori areagotu egin da azken 4 urteetan;** horren ondorioz, hazkundera sendoa gertatu da berrietan, bazkide komertzial tradizionalen eskaerak behera egin arren. Prozesu horrek azaltzen du 2009. urtetik AAEEK erakutsitako jokoaren % 75.
- Dibertsifikazioaren ondorioz esportazioetan gertatutako hazkunderak 0,2 puntu portzentaletan (p.p.) areagotu du urtero biztanleko BPGren hazkundera krisi garaian. Beraz, **prozesu dibertsifikatzailea gertatu izan ez balitz, biztanleko BPGren gainbehera % 28 handiagoa izango litzateke atzeraldiak iraun duen urteetan.**

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua

EAEko kanpo-sektoreak dibertsifikazio-prozesu esanguratsua bizi izan du. Hala ere, ez du aurrera egin esportazioen helmugaren arabera dibertsifikazioaren mailan beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta, eta, 2012. urtean, batez bestekoaren azpitik zegoen, arinki bazen ere. Bestalde, **produktuen dibertsifikazioari dagokionez, EAE izan da ahalegin txikiena egin behar izan duen eskualdeetako bat, lehendik ere prozesu horretan nahiko murgilduta baitzegoen,** eta, beraz, lortutako etekinen pisurik handiena helmugekin lotuta dago.

17: Situación España Primer Trimestre de 2014 argitalpeneko 3. errekoadroan sakonki aztertzen da atal honetan egindako azterketarako erabilitako erueda. Hemen eskura daiteke errekoadro hori: https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/migrados/1402_Situacion_Espana_tcm346-423173.pdf

18: Eskualdekako zerbitzuen esportazio datuen gabezien ondorioz, Aduana-bulegoak emandako ondasunen esportazioetara mugatzen da azterketa.


19: Ikusi IMF (2013) Country Report No. 13/232 <http://www.imf.org/external/pubs/ft/scr/2013/cr13232.pdf>

20: Situación España Cuarto trimestre 2013 argitalpeneko 1. errekoadroan ekonomia espainiarraren gertaera estilizatuak aztertu dira, eta esportazioak ziklo ekonomikoari aurreratu zaizkiola ikus daiteke bertan. Ikusi

https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/migrados/1311_SituacionEspana_tcm346-410394.pdf


21: Uhartek ez dira kontuan hartu azterketa egiteko garaian, zerbitzu merkatuarekiko mendekotasun berezia dutelako (zerbitzu turistikoak, bereziki) eta horrek energia-esportazioen gain eragina duelako.

R.2.2 grafikoa
Helmugaren araberako dibertsifikazioa AAEEtan (1995-2012)*



* Balearrek dibertsifikazioa 8 oinarritzko puntutan (o.p.) murriztu dute. Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

R.2.3 grafikoa
Produktuaren araberako dibertsifikazioa AAEEtan (1995-2012)*




* Andaluziak dibertsifikazioa 0,8 o.p.-tan murriztu du. Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

R.2.4 grafikoa ikus daitekeenez, **Europako herrialdeek pisua galdu dute eskualdeko kanpo-sektorearen osoarekiko**, eta 10 p.p. galdu dituzte, 2003ko sortako maximotik, **soilik atzeraldian bazkide europarrei zuzendutako salmentak % 36 handitu diren arren**. Bestalde, **helmugen dibertsifikazio-prozesuan Asia nagusitu da** (Txina, Singapur eta India izan dira esportazioen helmuga nagusiak), **EAEko esportazioen % 16,2 eremu horretara zuzendu**

baita; horrez gain, 2009. urtetik, % 30etik gorako hazkundeak jasan ditu. Bestalde, **Amerikaren** tokia ere azpimarratu behar da (Brasil, Mexiko eta AEB dira merkataritza-bazkide nagusiak), **% 50etik gorako hazkundera izan baitu eta kanpoko salmenten % 10 baita ia**.

Produktuari dagokionez, **dibertsifikazio-prozesua ez da oso garrantzitsua izan**. Hala ere, R.2.5 grafikoa ikus daitekeenez, **baliabideen berregituraketa esanguratsua gertatu da**. Oraindik **EAEko kanpo-sektorea ekipo-ondasunetan eta semimanufaktura oinarritzen bada ere, azken horiek pisua galdu dute** (10 p.p. 1995. urtetik), orduan pisu eskasa zuten **beste sektore batzuen mesedetan, hala nola produktu energetikoen eta automobilgintzarenetan**, 2013an osoaren % 12 eta % 8 izan baitira, hurrenez hurren.


R.2.4 grafikoa
Ondasunen esportazioen banaketa EAEn, eremu geografikoen arabera



* Andaluziak dibertsifikazioa 0,8 o.p.-tan murriztu du. Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

R.2.5 grafikoa

Ondasunen esportazioen banaketa EAEn, eremu geografikoen arabera




Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Lehen esandakoaren ildotik, BBVA Research-en (2014) autonomia-erkidegoen esportazioen dibertsifikazio-prozesuaren etekinak kuantifikatzeko eredu bat eratu da. Hauek dira ereduaren **emaitza nagusiak** EAeko ekonomiarako:

1. **Eskualdeko esportazioen dibertsifikazioak** (nagusiki helmugaren arabera) **azalduko luke 2009. urtetik berorien % 4,5eko hazkundera urtero** (Ikusi R.2.6 grafikoa); **aldiz, epe horretan urtero izandako hazkundera % 8,2koa izan da.** Hau da, dibertsifikazio-prozesua izan da azken 5 urteetan esportazioek izan duten hazkunderaren % 55aren bultzatzaile.
2. Dibertsifikazioaren ondorioz esportazioek izan duten hazkundera 0,05 puntu portzentualeko ekarpena egin dio biztanleko BPGren urteroko hazkunderari krisi-garaian. Horren ondorioz, **dibertsifikazio-prozesua gertatu izan ez balitz, biztanleko BPGren jaitsiera % 15 handiagoa izango zatekeen atzeraldi osoan.**

R.2.6 grafikoa

Esportazioen hazkunderari urtean batez beste egindako ekarpenak (2009-2012)



Iturria: BBVA Research

Laburtuz, **eskualdeko enpresek beren produktuak merkatu dinamikoagoetara zuzentzeko erakutsi duten gaitasunak eragin positiboa izan du esportazioen gain, eta nabarmenki islatu da hori EAeko biztanleko BPGn.** Horren guztiaren ondorioz, **krisialdian bereziki, esportazioek** jokaera bereizgarria izan dute -eskariaren beste osagai batzuk ez bezala-, eta **biztanleko BPGren erorketa moteldu dute.** Nagusiki produktuari dagokionez EAek lortu duen dibertsifikazioa handia izan den arren, nazioarteko izaera emateko ahalegina aurrerago eraman daiteke, hala, eskualdearen suspertze ekonomikoa sendotu ahal izateko. Alde horretatik, ekonomia garatuen eta garatze bidean daudenen arteko hazkunde-diferentziala baliatu beharko litzateke, diru-zorro efektuaren ondorioz sortutako arrisku-faktorea murriztearekin batera.

4 Autonomia-erkidegoetako finantzak 2013an eta 2003tik 2013ra

Ángel de la Fuente - FEDEA eta Análisi Ekonomikorako Institutua (CSIC.) 2014ko iraila

1. Sarrera

Ohar honetan, eskualdeetako finantzek azken hamarkadan izan duten bilakaera aztertuko dugu; 2013ko ekitaldian arreta berezia jarriz, duela gutxi argitaratu baitira aurrekontua betetzeari buruzko urte horretako datuak. Horretarako, doikuntza batzuk txertatu ditugu autonomia-erkidegoetako diru-sarrerari eta gastuei dagokienez eskura ditugun aurrekontu-datuetan, zenbait sail kontabilizatze moduak sortutako distortsioak zuzentzeko.

Honako lan honetan erabili den informazioa autonomia-erkidegoetako aurrekontuen urteko likidazioetatik hartu dugu batik bat, Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak (MHAP, 2014a) argitaratzen duen dokumentutik, bai eta iturri horrek berak aurrekontuak betearazteari buruz emandako datuetatik ere (MHAP, 2014b). Aurrekontuetako diru-sarrera eta gastuen sortetan, zenbait doikuntza egin dira, berorien garapen profiletan sortutako distortsioak zuzentzeko; izan ere, zenbait sail kontabilizatze moduak distortsioak ekarri ditu, eta hor sartzen dira, adibidez, autonomia-erkidegoei egin zaizkien zenbait atxikipen, 2008 eta 2009. urteetako eskualdeen finantziario-sistemako likidazioen saldo negatiboen ordainketa gisa egotzitakoak, eta ekitaldi bakoitzean kontabilizatu gabeko ordaindu gabeko fakturak.²² Bestalde, eskualdeko diru-sarreraren sorta bat ere eraiki da, sortzapen-irizpide bat oinarri hartuta. Aurrekontuetako edo kutxa bidezko diru-sarreraren sortaren eta sortutako diru-sarreraren sortaren arteko aldea zera da: lehenengoan, ekitaldian egiaz jaso diren diru-sarrerak kontabilizatzen dira, hau da, indarreko ekitaldi horretan kontura egin diren sarreraren batura, gehi bertan ordaindutako edo jasotako finantziario-sistemaren likidazioak (normalean, bi urte lehenagokoak izaten dira); bigarrenengoan, aldiz, urteari dagozkion diru-sarrerak hartzen dira kontuan, berorien likidazioa ere barnean hartuta (egiaz beste ekitaldi batean ordaindu arren).

Autonomia-erkidegoek azken hamarkadan izandako gastuen eta diru-sarreraren azterketak adierazten du 2003tik 2009ra autonomia-erkidegoen gastua erruz handitu zela, eta egungo krisia hasi zenean eta diru-sarrerak murrizten hasi zirenean autonomia-erkidegoen finantza-egoerak oso azkar egin zuen okerrera. Azkeneko ekitaldian, eskualdeetako aurrekontu-saldoren hobekuntza nabarmena gertatu da, gastuak murriztearen eta diru-sarrerak egonkortzearen ondorioz. Murrizketa horren zati handi bat, hala ere, inbertsio-sailtan gertatu da, eta hori kezagarria da neurri batean.

2. Autonomia-erkidegoek orotara eta EAEk azken hamarkadan izandako bilakaera


4.1 grafikoko lehenengo panelak autonomia-erkidego guztiek azken hamarkadan jasandako aurrekontuen defizitak izan duen bilakaera erakusten du, kutxa-irizpideekin eta sortzapen-irizpideekin kalkulatuta. Lagin-aldiaren lehenengo urteetan, hedapen ekonomiko luzearen azken zatiari dagozkionetan, autonomia-erkidegoek soberakin arinak erakusten dituzte, batez beste, aurrekontuetan, eta 2006. urtean iritsiko dira punturik gorenera. 2008an, krisia hasi zenean, autonomia-erkidegoetako aurrekontuen saldoek oso azkar egin zuten behera, eta 2009an BPGren % 4,1eko gehieneko defizita izan zen, sortzapen-irizpidearekin kalkulatuta. Krisiaren lehenengo urte horietan gertatutako defizitaren hazkundera askoz ere txikiagoa da kutxako datuekin lan egiten dugunean, autonomia-erkidegoak zerga-bilketaren hondoratzeetik bakartzeko erabakia hartu baitzuen Estatuak, eta konturako entregak bilketaren aurreikuspen errealistak justifikatuko

22: Xehetasun gehiago jakiteko, ikusi honako oharkizun honen oinarri den laneko dokumentuaren bertsioa: de la Fuente (2014); hemen eskura daiteke <https://www.bbva-research.com/publicaciones/las-finanzas-autonomicas-en-2013-y-entre-2003-y-2013/>

zukeenak baino askoz ere handiagoak izan baitziren. Irizpide horretan oinarrituta, defizit handiena 2011. urteari dagokio, BPGren % 2,8rekin. Urte horretatik aurrera, egoera hobera egiten hasi zen, beherazko erritmoari eutsi bazitzaion ere. 2012. urtean, autonomia-erkidegoen defizit agregatua BPGren 1,1 puntu murriztu bazen ere (BPGren % 2,8tik % 1,7ra igaro zen), 2013an puntu erdi hobetu zen soilik, defizitaren maila BPGren % 1,2ra iritsi baitzen.


4.1 grafikoa
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa, BPGren %tan

a. autonomia-erkidegoen multzoa



Iturria: A. de la Fuente

b. EAE




Iturria: A. de la Fuente

4.1 grafikoa bigarren panelean ikus daitekeenez, EAEko aurrekontuen saldoak, oro har, Estatu bategi bestekoaren antzeko eredu agertzen du, sortzapen-irizpideekin kalkulaturik. EAEren kasuan, diru-sarreraren galera ez da arindu Estatuak egindako konturako entregaren ondorioz, ez baitago horrelakorik sistema foralean. Bestalde, aldiaren azken zatian defizitaren hobekuntza nabarmenagoa da EAEren kasuan, eta gorabehera gutxiago gertatzen dira.


4.2 grafikoa
Gastu eta diru-sarrera ez-finantzarioak biztanleko, 2008ko prezio iraunkorretan, 2003 = 100

a. autonomia-erkidegoen multzoa



Iturria: A. de la Fuente

b. EAE



Iturria: A. de la Fuente

Interesgarria da autonomia-erkidegoetako aurrekontu-saldoen atzean dauden gastuen eta diru-sarreraren bideak zehaztasun handiagoz aztertzea. Hurrengo lerroetan biztanleko diru-sarreraren (kutxakoak) eta gastuen kopuruekin lan egingo dugu; kopuru horiek 2008ko prezio iraunkorretan neurtutakoak izango dira beti, Espainiako BPGren deflatoarea erabiliz. 4.2 grafikoak diru-sarrera eta gastu ez-finantzarioek oro har autonomia-erkidegoetan eta bereziki **EAEn** izan duten bilakaera jasotzen du. Lehenengo panelean, ondo berezitateko lau fase dituen jokabide-eredu bat erakusten du grafikoak. 2003tik 2007ra, autonomia-erkidegoen diru-sarrerak eta gastuak oso antzeko eritmoetan haziko dira, eta, horri esker, aurrekontuetan orekari eutsiko zaio. 2007tik 2009ra, gastuek oso gora egingo dute bat-batean, eta,aldi berean, diru-sarrerak beherantz doaz, poliki kutxakoetan, bizkorrago sortzapenen arloan. 2009tik 2011ra, bai diru-sarrerak eta bai gastuak murriztu egingo dira, baina lehenengoak are gehiago murriztuko dira, eta, horren ondorioz, defizitak gora egingo du indar handiz. Azkenik, 2011. urtetik aurrera, diru-sarrerak egonkortzen hasiko dira eta gastuen murrizketari eutsiko zaio; horren ondorioz, defizit agregatuak behera egingo du. Lehenago ikusi dugunez, murrizketa hori handiagoa izan da 2012an 2013an baino, gastuaren bilakaerari esker funtsean, murrizketa handiagoa jasan baitzuen lehenagoko ekitaldian.

EAEn kasua Espainiako batez bestekoaren oso bestelakoa da. Aldiaren lehenengo zatian, diru-sarrerak gastuak baino azkarrago handituko dira, eta, horri esker, erkidegoak superabit nabariak erakutsiko ditu hainbat urtean. 2009an, krisia hasi zenean, gastuaren hazkundera eten egingo da, baina 2013. urtera arte ez da murriztuko. Diru-sarrerak, aldiz, 2010ean jada gorantz egiten hasiko dira, eta, horri esker, defizita Estatuan baino azkarrago murriztuko da, batez beste. 2013. urtean, hala ere, diru-sarreraren bilakaera Espainiako gainerako lurraldeetako baino nabarmen okerragoa izango da.

Hamarkada horretan autonomia-erkidegoetako diru-sarrerak nahiz gastuek izandako aldakuntzak oso handiak dira. 2003tik 2007ra, biztanleko diru-sarrera errealek hogeitun puntutik gora handitu ziren autonomia-erkidegoen multzoan, baina, gero, hasierako mailara itzuli ziren ia, eta 2003an behatutako mailaren azpitik kokatu ziren 2014an, % 1,6 beherago. Modu berean, biztanleko gastu erreala 33 puntu portzentual handitu zen 2003tik 2009ra, eta orduz geroztik 24 puntu murriztu da, hasierako maila baino 9 puntu gorago kokatuz; alegia, biztanleko gastu errealearen maila 2005ean behatutakoaren antzekoa da. Hala, bada,aldi horretan sortutako desoreka (defizitean BPGren % 1,3ko gehikuntza) hasierako mailarekin alderatuta diru-sarrerak izandako galerak azaltzen du neurri batean (% 15ean, gutxi gorabehera) eta, neurri handigoan (% 85ean), gastuaren gehikuntzak. Estatuak eskualdeko finantziario-sistemari egindako ekarpenaren hazkundera handia izan da diru-sarreraren galeraren pisua mugatuagoa izateko arrazoiak, ekarpen hori BPGren puntu bat pasatxo handitu baitzen, 2009an onartutako erreformaren ondorioz.


EAEn kasuan, garai horretan metatutako desoreka Espainiakoa baino txikixeagoa izan da (BPGren puntu bat, batez bestekoa baino hiru hamarren gutxiago). Desoreka hori gastuaren hazkunderaren ondorio da erabat, biztanleko diru-sarrera errealek, Estatuan ez bezala, hobekuntza nabarmena izan baitute erkidegoan 2003tik 2013ra, BPGren puntutan zortzi hamarren handitu baita.

4.2 grafikoan ikus daitekeen gastu ez-finantzarioa hiru sail handitan bana daiteke: i) aurrekontu publikoetako 6. eta 7. kapituluetan jasotako kapital-gastuak (inbertsio errealek eta kapital-transferentziak), ii) interesen ordainketako gastua (3. kapituluak) eta iii) gastu arrunta (interesetatik garbi), langileen gastuak, ondasun eta zerbitzuen erosketak eta transferentzia arruntak (1., 2. eta 4. kapituluak) barnean hartzen dituenak. 4.3 grafikoko bi panelek sail horien bilakaera jasotzen dute, diru-sarreraren eta gastu agregatuaren moduan arautu ondoren.

4.3 grafikoa


Gastu ez-finantzarioaren osagaiak biztanleko, 2003 = 100, 2008ko prezio iraunkorretan

a. autonomia-erkidegoen multzoa



Iturria: A. de la Fuente

b. EAE




Iturria: A. de la Fuente

Grafikoan ikus daitekeenez, gastu agregatuaren hiru osagaien profilak oso desberdinak dira. Inbertsiorako sailak oso azkar murriztu dira aldiaren bigarren erdian, eta hasierako balioaren erdia baino apur bat gorago gelditu dira azkenean; interesen gastua, berriz, hirukoiztu egin da urte gutxian autonomia-erkidegoen multzoan, zorra oso azkar metatzearen eta arrisku-sariaren igoeraren ondorioz. Bestalde, gastu arruntaren zati handienak osotarako gastuak baino beherakada apalagoa izango du 2009. urtetik aurrera, eta 2013an 2006-2007ko maileri eutsiko die. **EAEk batez bestekoaren antzeko jokaera erakutsiko du kualitatiboki, baina inbertsioaren murrizketa beranduago hasiko da eta askoz ere txikiagoa izango da, garaiaren hasiera amaierarekin konparatzen badugu. Bestalde, interesen sailaren bilakaera batez bestekoa baino positiboagoa da aldiaren lehenengo zatian, gero gehiago hazten da, tasa handiagoa lortuz, eta amaieran erkidegoen batez bestekoarekin bat egiten du.**

4.4 grafikoa


Gastu ez-finantzarioaren murrizketaren pisua biztanleko, 2008ko prezioetan

a. 2009tik 2013ra



Iturria: A. de la Fuente

b. 2012tik 2013ra




Iturria: A. de la Fuente

4.4 grafikoak gastuaren atalek 2009tik 2013ra eta 2012tik 2013ra kontsolidatze fiskalaren prozesuari egindako ekarpena erakusten du, **bai EAEn eta bai autonomia-erkidegoen multzoan**. Interesen sailaren ikur negatiboak adierazten digu hazkunde horrek gastuaren murrizketa bultzatu beharrean, moteldu egin duela. Oso azkar handitu arren, interesek gastuen bilakaeran izan duten eragina mugatua izan da, sail horren hasierako neurria txikia zelako. Grafikoan beste gertaera interesgarri bat beha daiteke: kapital-eragiketen pisu handia. Autonomia-erkidegoen multzoari dagokionez, 2009tik 2013ra gastuan gertatutako murrizketaren erdia gutxi gorabehera inbertsio-sailen murrizketa handiaren ondorio da. Azken ekitaldi osoa aztertzen badugu, kopuru hori kopuru osoaren bi herenera iristen da ia. **EAEn, kapital-sailak gastuaren murrizketan duen pisua batez bestekoa baino handiagoa da 2009tik 2013ra, eta % 60ra iritsiko da. Azken urtean, aldiz, eredu hori alderantzikatu egin da.**

3. Eskualdeko finantzen bilakaera 2013an

2012 eta 2013. urteetan autonomia-erkidegoetako aurrekontu-defizitak konparatzen ditu 4.5 grafikoak, kutxa-irizpideetan oinarrituta.²³ Agregatuan gertatu bezala, autonomia-erkidego gehienek beren aurrekontu-defizita nabarmen murriztea lortu dute, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Salbuespen bakarrak Aragoi eta Kanariar Uharteak izan dira, berorietan defizita BPGren hiru hamarren inguru hazi baita.

4.5 grafikoa
Aurrekontu-defizita BPGren ehunekotan, 2012 vs. 2013
(Gastu ez-finantzarioak – diru-sarrera ez-finantzarioak)/BPG



Iturria: A. de la Fuente

4.1 koadroan aztertu dira eskualdeetako aurrekontu-saldoen hobekuntzaren berehalako iturriak. [1] zutabeak eskualdeetako aurrekontu-saldoaren 2012ko eta 2013ko aldakuntza erakusten du, eta, kalkulu horietan, aldagai horretako ikur positibo bat defiziti txikiagoari dagokio, edo superabit ez-finantzario handiagoari, BPGren ehunekotan neurtuta, betiere. Aurrekontu-saldoaren aldakuntza diru-sarreraren eta gastu ez-finantzarioen arteko aldea da (hurrenez hurren, [2] eta [3] zutabeak). Azkenik, osotarako gastu ez-finantzarioaren aldakuntza, bere hiru osagaien aldakuntzen batura gisa adieraz daiteke: kapital-eragiketak, gastua interesetan eta gainerako gastu arrunta.

Agregatuaren jokaera aztertu da jada aurreko atalean, apur bat desberdina den modu batez neurtutako aldagai batzuekin lan eginez, hala ere. Diru-sarrerari ia berdina eutsi zaienez, 2013ko aurrekontu-saldoaren batez bestekoa izan den hobekuntza gastuaren murrizketari zor zaio eskusiboki, baina aurrezkiaren zatirik

23: Hemen aztergai hartu ditugun aurrekontu-saldoak aurrekontu-kontabilitateko datuekin kalkulatu dira, eta ez datoz bat zehatz-mehatz Estatu Kontabilitatearen arloan adierazitako datuekin; azken horiek dira, hain zuzen, autonomia-erkidegoen defizit-helburuak ezartzeko balio duten erreferentzia ofizialak. Bi adierazleen arteko korrelazioa handia bada ere (0,86), alde nabarmenak daude eskualde batzuetan. Bi magnitudeen arteko konparazioa egiteko, ikusi Eranskineko 4. atala: de la Fuente (2014).

handiena kapital-sailetatik dator. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, diru-sarrerren gainbehera handia nabarmentzen da, lehen ikusi dugunez; baina gastuaren murrizketak konpentsatu du hori argi eta garbi, eta inbertsioetan izandako murrizketak pisu handia izan du hor.

4.1 koadroa

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioaren aldakuntza 2012an eta 2013an, eta beronen osagaietan xehetua Eskualdeko BPGren ehunekotan

	[1] aurrekontu- saldoaren aldakuntza	[2] diru-sar. aldakuntza	[3] gastuaren aldakuntza	[4] interes aldakuntza	[5] beste gastu arruntaren aldakuntza	[6] kapital- eragiketen aldakuntza
Andaluzia	0,60%	0,12%	-0,48%	0,14%	0,30%	-0,92%
Aragoi	-0,30%	0,11%	0,41%	0,13%	-0,09%	0,38%
Asturias	0,15%	0,09%	-0,06%	0,11%	0,09%	-0,26%
Balearrak	1,70%	0,96%	-0,74%	0,00%	-0,84%	0,10%
Kanariak	-0,35%	0,21%	0,56%	0,12%	0,15%	0,29%
Kantabria	0,08%	0,62%	0,54%	0,13%	0,48%	-0,06%
Gaztela eta Leon	0,20%	0,13%	-0,08%	0,14%	0,04%	-0,25%
Gazt. Mantxa	1,11%	-0,44%	-1,54%	0,23%	-0,38%	-1,39%
Katalunia	0,28%	-0,15%	-0,43%	0,01%	-0,43%	-0,01%
Valentziako Erk.	1,60%	0,08%	-1,52%	0,23%	-1,35%	-0,41%
Extremadura	0,96%	1,37%	0,42%	0,09%	0,39%	-0,06%
Galizia	0,23%	0,20%	-0,04%	0,08%	0,11%	-0,23%
Madril	0,13%	-0,25%	-0,39%	0,10%	-0,29%	-0,20%
Murtzia	2,87%	0,58%	-2,29%	0,24%	0,84%	-3,36%
Nafarroa	0,36%	0,11%	-0,24%	0,09%	0,30%	-0,63%
Euskadi	0,28%	-0,83%	-1,12%	0,04%	-0,51%	-0,65%
Errioxa	0,08%	0,18%	0,10%	0,07%	0,08%	-0,05%
Guztira	0,51%	-0,01%	-0,52%	0,11%	-0,24%	-0,40%

Iturria: A. de la Fuente

Hala ere, zenbait erkidegok batez bestekoarekiko oso desberdinak diren jokabide-ereduak erakusten dituzte. Kasurik deigarrienak letra lodiz nabarmendu ditugu 4.1 koadroan. Esate baterako, aurrekontu-saldoaren gainbehera txiki bat erakusten du Aragoik, gastua amini bat igotzearen ondorioz; eta, joera orokorrari aurre eginez, kapital-gastu handiago batean du jatorria berorrek. Kanarietan ere, antzeko zerbait gertatzen da, nahiz eta kasu horretan gastuaren gorakada banatuago dagoen kapital-sailen eta gastu arruntaren artean. Eskalaren bestaldeko muturrean daude, berriz, Balearrak, Valentzia eta Murtzia, beren aurrekontu-saldoak nabarmen hobetu baitira, BPGren 1,5 puntu baino gehiago. Balearretan, hobekuntza bi bidetatik etorri da, neurri berean: diru-sarrerak hobetetik eta gastu arruntaren murrizketatik (interesetatik garbi). Valentziako Erkidegoan, faktorerik garrantzitsuena gastu arruntaren murrizketatik (interesetatik garbi) etorri da, eta Murtzian, berriz, inbertsioen murrizketatik eta, neurri txikiagoan, diru-sarrerren dinamismotik.

Erreferentziak

de la Fuente, A. (2014). "Las finanzas autonómicas en 2013 y entre 2003 y aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2013."

Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa (MHAP, 2014a). *Liquidación de los presupuestos de las comunidades autónomas*. Autonomia-erkidegoko eta tokiko koordinaziorako Idazkaritza Nagusia, Madril.
<http://serviciosweb.meh.es/apps/publicacionliquidacion/asp/menuInicio.aspx>

Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa (MHAP, 2014b). *Consulta de información de ejecución presupuestaria de las comunidades autónomas*. Autonomia-erkidegoko eta tokiko koordinaziorako Idazkaritza Nagusia, Madril.

<https://serviciostelematicos.minhap.gob.es/cimcanet/asp/consulta/consulta.aspx>

5 Taulak

5.1 koadroa

Euskadiko ekonomiaren koiuntura adierazle nagusiak

%	2012		Batazbesteko hazkundea urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, uez)		Azken hilabetea
	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	Euskadi	Espainia	
Txikizkako salmentak	-6,1%	-3,9%	0,8%	0,0%	0,5%	2,8%	abu. 14
Matrikulazioak	8,0%	4,1%	16,9%	16,8%	1,1%	1,4%	ira. 14
ZSJI (IASS)	-3,6%	-2,1%	4,0%	2,2%	2,4%	0,1%	uzt. 14
Bidaiari egoiliarak (1)	-4,3%	-1,1%	0,8%	4,4%	2,1%	0,0%	abu. 14
Egoiliarren ostatu-gauak (1)	-6,5%	-1,4%	2,5%	3,2%	1,5%	0,0%	abu. 14
IPI	-3,4%	-1,7%	-1,2%	1,8%	-0,4%	-1,1%	uzt.14
Etxebizitza bisatuak	-12,0%	-22,4%	6,9%	1,5%	0,1%	13,1%	uzt.14
Esportazio Errealak (2)	-17,8%	-2,2%	7,5%	-2,8%	-5,5%	0,1%	uzt.14
Inportazioak	0,7%	3,8%	5,5%	2,3%	-5,2%	2,4%	uzt.14
Bidaiari Atzerritarak (3)	-0,3%	-3,0%	14,0%	6,5%	18,8%	50,2%	uzt.14
Atzerritarren Ostatu-gauak (3)	6,0%	3,3%	-0,6%	4,2%	1,3%	3,8%	abu. 14
Afiliazioa SSn	6,4%	3,8%	-1,4%	2,5%	2,5%	1,6%	abu. 14
Langabezia Erregistratua	-3,1%	-3,1%	-0,1%	1,3%	0,3%	0,1%	abu. 14

(1) Espainiako Egoiliarak (2) Ondasun esportazioak (3) Espainiako egoiliarak ez direnak
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministeritzetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

5.2 koadroa

EDB: aurreikuspen makroekonomikoak (Urteko bariazio-tasak %-tan, kontraktorik adierazi ezean)

	2010	2011	2012	2013	2014
BPG erreala	2,0	1,5	-0,5	0,3	1,3
Kontsumo pribatua	0,9	0,1	-1,3	-0,3	0,9
Kontsumo publikoa	0,7	-0,1	-0,3	-0,5	0,2
Kapital finkoaren eraketa gordina	-0,3	1,6	-3,9	-1,3	3,3
Eraikuntza	-4,4	-0,3	-3,1	-1,5	2,0
Izakinen aldaketa (hazkunderako ekarpena)	0,6	0,2	-0,6	0,0	0,0
Barne-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	1,2	0,5	-2,2	-0,5	1,1
Esportazioak	11,0	6,5	2,9	3,3	3,8
Inportazioak	9,5	4,3	-0,8	1,8	3,8
Kanpo-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena)	0,7	1,0	1,6	0,8	0,2
Pro-memoria					
BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe	2,2	1,5	-0,4	0,3	1,3
BPG, eraikuntza gabe	2,8	1,7	-0,1	0,4	1,3
Enplegua guztira (BAI/EPA)	-0,5	0,5	-0,7	-0,5	0,4
Langabezia-tasa (bizt. akt. %)	10,1	10,2	11,4	11,8	11,4
Kontu korrante saldoa (BPGren %)	0,0	0,1	1,1	1,3	1,4
Herri-administrazioen saldoa (BPGren %)	-6,2	-4,1	-3,0	-2,3	-1,8
KPI (aldiaren batez bestekoa)	1,6	2,7	2,5	1,6	1,5

Aurreikuspenen itxiera-data: 2014ko abuztuan 4
Iturria: erakunde ofizialak eta BBVA Research

5.3 koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina

(Urteko tasak, %)	2010	2011	2012	2013	2014
Estatu Batuak	2,4	1,8	2,2	1,8	2,3
EDB	2,0	1,5	-0,5	0,3	1,3
Alemania	4,0	3,1	0,9	1,0	2,0
Frantzia	1,6	1,7	0,0	0,4	1,5
Italia	1,8	0,6	-2,4	-0,7	0,9
Espainia	-0,3	0,4	-1,3	-1,1	1,1
Erresuma Batua	1,8	0,9	0,3	1,0	1,9
Latinoamerika*	6,2	4,3	2,8	3,5	3,7
Mexiko	5,4	3,9	3,9	3,1	3,1
Brasil	7,6	2,7	0,9	3,6	4,0
EAGLES **	8,4	6,6	5,1	5,8	6,1
Turkia	9,5	8,5	2,2	4,4	5,5
Asia Ozeano Barea	8,2	5,7	5,2	5,6	5,8
Txina	10,5	9,3	7,8	8,0	8,0
Asia (Txina gabe)	6,7	3,4	3,6	4,0	4,4
Mundua	5,1	3,9	3,2	3,6	4,1

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexiko, Peru, Venezuela

** Brasil, Korea, Txina, India, Indonesia, Mexiko, Errusia, Taiwan, Turkia

Aurreikuspenen itxiera-data: 2014ko abuztuan 4

Iturria: BBVA Research

5.4 koadroa

Finantza aldagaiak

Interes-tasak 10 urtera (batez bestekoa)	2010	2011	2012	2013	2014
Estatu Batuak	0,25	0,25	0,25	0,25	0,25
EDB	1,00	1,00	0,75	0,75	1,25
Txina	5,81	6,56	5,75	6,00	6,00

Interes-tasak 10 urtera (batez bestekoa)

Estatu Batuak	3,2	2,8	1,8	2,0	2,6
EDB	2,8	2,6	1,6	2,0	2,9

Ganbio-tasa (batez bestekoa) Dolarrak (\$) moneta nazionaleko

Estatu Batuak (EUR USDko)	0,76	0,72	0,78	0,77	0,75
EDB	1,33	1,39	1,29	1,31	1,34
Erresuma Batua	1,55	1,60	1,59	1,52	1,53
Txina (RMB USDko)	6,77	6,46	6,31	6,16	6,02

Aurreikuspenen itxiera-data: 2014ko abuztuan 4

Iturria: BBVA Research

LEGE-OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektiotzat. Aldagai ekonomikoen bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukiak aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

Txosten hau Espainia eta Europako Unitateak prestatu du:

Ekonomia Garatueterako ekonomialari burua

Rafael Doménech
r.domenech@bbva.com
+34 91 537 36 72

Espainia

Miguel Cardoso
miguel.cardoso@bbva.com
+34 91 374 39 61

Juan Ramón García
juanramon.gl@bbva.com
+34 91 374 33 39

Myriam Montañez
+34 954 24 74 86
miriam.montanez@bbva.com

Amanda Tabanera
amanda.tabarena@bbva.com
+34 91 807 51 44

Anabel Arador
ana.arador@grupobbva.com
+ 34 93 401 40 42

Laura González
laura.gonzalez.trapaga@bbva.com
+34 91 807 51 44

Virginia Pou
virginia.pou@bbva.com
+34 91 537 77 23

Camilo Andrés Ulloa
camiloandres.ulloa@bbva.com
+34 91 537 84 73

Joseba Barandiaran
joseba.barandia@bbva.com
+34 94 487 67 39

Félix Lores
felix.lores@bbva.com
+34 91 374 01 82

Juan Ruiz
juan.ruiz2@bbva.com
+34 646 825 405

Mónica Correa
monica.correa@bbva.com
+34 91 374 64 01

Antonio Marín
antonio.marin.campos@bbva.com
+34 648 600 596

Pep Ruiz
ruiz.aguirre@bbva.com
+34 91 537 55 67

BBVA Research

Taldeko Ekonomialari Burua

Jorge Sicilia Serrano

Garatutako Ekonomiak

Rafael Doménech Vilariño
r.domenech@bbva.com

Espainia

Miguel Cardoso Lecourtois
miguel.cardoso@bbva.com

Europa

Miguel Jiménez González-Anleo
mjimenezg@bbva.com

Estatu Batuak

Nathaniel Karp
Nathaniel.Karp@bbva.com

Garatze bidean diren Ekonomiak

Alicia García-Herrero
alicia.garcia-herrero@bbva.com

Garatze bidean diren Ekonomien

Zeharkako Análisis
Álvaro Ortiz Vidal-Abarca
alvaro.ortiz@bbva.com

Asia

Le Xia
le.xia@bbva.com

Mexiko

Carlos Serrano Herrera
carlos.serranoh@bbva.com

Latam koordinazioa

Juan Manuel Ruiz Pérez
juan.ruiz@bbva.com

Argentina

Gloria Sorensen
gsorensen@bbva.com

Txile

Jorge Selaive Carrasco
jselaive@bbva.com

Kolonia

Juana Téllez Corredor
juana.tellez@bbva.com

Peru

Hugo Perea Flores
hperea@bbva.com

Venezuela

Oswaldo López Meza
oswaldo.lopez@bbva.com

Finantza Sistemak eta Araudia

Santiago Fernández de Lis
sfernandezdelis@bbva.com

Finantza Sistemak

Ana Rubio
arubiog@bbva.com

Finantza Barneraketa

David Tuesta
david.tuesta@bbva.com

Araudia eta Politika Publikoak

María Abascal
maria.abascal@bbva.com

Política de Recuperación y Resolución

José Carlos Pardo
josecarlos.pardo@bbva.com

Erregulazio Koordinaketa Globala

Matías Viola
matias.viola@bbva.com

Arlo Globalak

Inguru Ekonomikoak

Julián Cubero Calvo
juan.cubero@bbva.com

Finantza Inguruak

Sonsoles Castillo Delgado
s.castillo@bbva.com

Berrikuntza eta Prozesuak

Oscar de las Peñas Sánchez-Caro
oscar.delaspenas@bbva.com

Interesdunak, helbide honetara zuzendu:

BBVA Research

Paseo Castellana, 81 - 7ª planta
28046 Madrid (España)
Tel.: +34 91 374 60 00 y +34 91 537 70 00
Fax: +34 91 374 30 25
bbvaresearch@bbva.com
www.bbvaresearch.com